



Juan Ignazio Vidarte, Guggenheim Bilbao Museoaren zuzendaria:

**“Euskal herritarrek
Bilbori lotuegi ikusten
dute Guggenheim
Museoa”**

Hamar urte igaro dira eraikin ikusgarriak Bilboko itsasadarraren ertza bizilekutat hartu zuenetik. Guggenheim Bilbao Museora jotzen duen atzerriko bisitaria liluraturik dauka Frank Gerhy-ren ontziak. Ikuslea zenbat eta hurrekoagoa, orduan eta eragin txikiagoa du azalak, eta handiagoa, aldiz, mamiak, askotariko erakusketek osatzen duten horrek. Hamar urteren ondoren, museoa erakargarri egiten jarraitzeko ardura dauka Juan Ignazio Vidartek, Bilboko Guggenheim museoak sortze beretik izan duen zuzendariak.

10. or.


Erreportajea: Mendetasunaren Legea, garrantzizkoa eta kritikatu

Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko Legea onartu zuen iazko azaroan Madrilgo Kongresuak. Legea indarrean da Urteberri egunetik eta atezuan jarri ditu mendetasunaren inguruan lanean ari diren sektore guztiak, hala herri erakundeak nola elkarteak. Denak ere ados dira legeari garrantzi handiena aitortzean. Dena dela, zenbat buru hainbat aburu dihardute, legeak ezarritako alderdiak aztertzen hasten direnean.

13. or.

Eztabaida: Zeintzuk dira gaur egungo gazteen balioak?

Belaunaldiz belaunaldi helduen ahotan errepikatzen den leloa da “gazte hauek ez dute balio moralik!” esaldia. Gazteen balioekin ados egon edo egon ez, kontua da balio moralak eduki badituztela. Askatasunak, adiskidetasunak... indarra hartu dute garai bateko ahalegin eta erlijiotasunaren aldean, adibidez. Zeintzuk dira euskal gazteen balioak? Zeintzuk dira euren kezkek? Belaunaldi arteko jauziaren alde batekoei zein bestekoei galdetu diegu, gazteak nolakoak diren eta nola ikusten ditugun jakiteko.



20. or.

16

**Hizkuntza bat,
mila aurpegi**
Asier Larrinaga

19

**Euskaraz
Europarantz**
Ludger Mees

22

**Pygmalion
efektuaz:
bestearren begiek
bizi naute**
Joseba Azkarraga



Uste dut birziklapenaren arauak ez dituela ulertu.



PAPER
BIRZIKLATUA

Zuzendaritza:
Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea (IVAP)

Koordinatzailea:
Xabier Amatria

Diseinua, fotokonposizioa eta inprimatzea: Itxaropena S.A.

Ilustrazioak: Concetta Probanza

Zenbaki honetako lanlendeak:
Juan Jose Agirrezabala, Bego Aierdi, Kaxildo Alkorta, Xabier Amatria, Jon Arizkun, Joseba Azkarraga, Itxaro Borda, Luis Elizondo, Miel A. Elustondo, Irene Fernández, Iñaki Goigogana, José Herrero, Asier Larrinaga, Ludger Mees, Begoña Minaur, Nerea Pikabea, Aurora Solano, Joseba Terreros, Rosa Mari Urrutia, Maider Ziaurriz

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkarian argiratutako artikulua berridatz daitezke bai osorik, bai zatika, baina artikulua nondik atera diren aipatu behar da beti.

ADMINISTRAZIOA EUSKARAZ
aldizkariak ez ditu derrigor bere egiten artikulua eta kolaborazioetan agertzen diren iritziak.

ADMINISTRAZIOA
EUSKARAZ

ISSN: 1576-5563. **Legezko Gordailua:** BI-1141-93. **Egilea:** Herri Arduralaritzaren Euskal Erakundea Donostia-San Sebastián 1, 01010 VITORIA-GASTEIZ. Tel. 945 01 76 00. www.ivap.euskadi.net

PERTSONAIA

Enrique Villareal *El Drogas,* Barricadako kantaria:



“Egunean egunekoa eginez iritsi gara hogeita bost urte betetzera”

Nerabezaroan era guztietako substantziak probatzen zituelako eta gaur egun drogen legalizazioaren alde dagoelako, *El Drogas* gisa eza gutzen dute Barricadako kantaria. Apirilean hogeita bosgarren urteurrena bete zuten eta urte osoan ospatzen ari dira, han eta hemen kontzertuak emanaz. Vianako Printzea saria jasotzeko proposatuak izan dira eta diamantezko diskoa jaso dute. Euskal rock gogorraren ikur handiak gozotasunez egin digu 25 urteen errepasoa.

Nola sortu zenuten Barricada taldea?

Hamasei urte nituela, asteburuetan diskoteketara edatera joan ordez, ikasgelakoak elkartzen ginen musika egiteko eta jotzeko. Ondoren, soldadutzatik itzultzean, Barricada sortu genuen. Mikel lehenengo bateria jotzailearen aitaren etxola batean egiten genituen entseguak hasieran.

Zertan aldatu da taldea hogeita bost urteotan?

Ez dakit. Urtero sortuz joan diren taldeetatik musika egiteko modu berriak ikasi, eta hori geurera egokitu dugu. Hasierako entzuleek guk adina zimur dituzte, eta batzuetan seme-alabekin etortzen dira emanaldietara.

Zer lortu nahi izan duzue zeuen hitzekin?

Ezer zehatzik ez. Ikusten eta bizitzen ari garena adierazteko modua besterik ez da. Kantu gehienak bakartasunari buruzkoak dira; eta hortik aurrera nor bere zentzua ematen dio abestiari. *Victima* edota *Balas blancas* kantuek, esate baterako, pateretan etortzen diren etorkinak dituzte mintzagai, Mendebaldekoan ikuspegitik begiratuta.

Gaur egun musika emanaldietara ez omen da jende asko joaten. Zuen kontzertuetan ere sumatu al da joera hori?

Disko gutxiago saltzen ditugu orain, baina kontzertuetan jende gehiagok hartzen du parte. Jendeak Internetetik jaisten ditu gure doinuak eta guztiek dakizkitez kantuen hitzak.

Pirateria aipatu duzu. Zer egin beharko litzateke hori saihesteko? Edo beste ikuspegi batetik egin beharko litzateke musika?

Beste ikuspegi bati heltzea da kontua. Guk koadrilan beti egiten genuen, batek disko bat erosi eta besteei pasatu, zintetan grabatzeko. Hori logikoa iruditzen zait. Baina ez da batere logikoa diskoetxeak berak jatorrizko diskoaren hainbat kopia egin eta horiek kalean jartzea, etorkinen esku, liburuxkarik

gabe eta beste azal batekin. Oso gai korapilatsua da.

Barricadaren historian une alai eta triste bana hautatu beharko bazenu...

Kontzertu bakoitza une alai bat da. Toki batera heltzen zarenetik alde egiten duzun arteko momentu hori, zeure doinuak jotzen dituzunean jendea kantuan ari dela ikustea... ez nuke ezerengatik aldatuko. Une tristeena, beharbada, Mikel Astrain gure lehenengo bateria jotzailea hil zenekoa litzateke; ospitalean familiaren ondoan pasatutako egunek asko batu gintuzten, baina tristura handia izan zen, gure historiaren zati bat joan zelako, eta hori izugarriko kolpea izan zen adin hartan.

Zer egin duzue taldearen 25. urteurrena ospatzeko?

Hiru orduko kontzertu indartsu bat ematen ari gara. Diamantezko diskoa jaso eta horrekin erakusketa bat egin dugu Iruñean; Lucía de Andrés gure argazkilariak zerikusi handia izan du horretan. Horrez gainera, Barricadaren izena daraman zigilua atera du Correosek.

Hurrengo hilabeteetarako zein proiektu dituzue esku artean?

Urte honen bukaeran biografia bat emango dugu argitaratu. Horrez gain, bi DVDz eta bi CDz osatutako bilduma bat plazaratuko dugu, liburuxka bat lagun duela. Kontzertuetako irudiak eta gure lokalean grabatuko ditugun 14 bat kantu egongo dira; zuzenekoetan jotzen ez ditugun abestiak izango dira denak. Gure historiako bitxikeriak azalduko dira.

Disko berririk aterako duzue?

Espainiako Gerra Zibilari buruz hitz egiten duten hamar bat doinu eginda ditugu. Kantu horiek pixka bat orraztutakoan grabatzen hasiko gara, eta datorren urtean argitaratuko dugu diskoa.

Nerea Pikabea
Kazetaria

Prestakuntza

II. Mundu Gerra izenekoan urpeko ontzi ingeles batek tiro egin eta bete-betean jo zuen alemaniarren “schiff” bat. Izugarritzko zuloa egin zion, eta gerrarako prestatutako merkataritza-ontzi itxurako barku hura hondoratzen hasi zen berehala. Nahiko lan izan zuten kanoikadek hil ez zituzten marinelek salbamenduko txalupak askatu, uretara bota eta eurak barruan sartzen.

Itsas kapitainen arteko ohorezko araudiak agintzen zuena duintasunez bete behar-eta, kapitainak, beste guztiak bezala bere burua salbatzen ahalegindu ordez, ontziarekin batera hondoratzea erabaki zuen. Tripulaziokoek bazekiten hala zela gauza, baina gizatasuna jabetu zitzaizen eta, une larri haietan, oihu eta deiadarka, salbatzeko esaten zioten kapitainari, salto egiteko txaluparen batera, itota hiltzea alferrekoa zela... Kapitaina beldurra egongo zen dudarik gabe, baina sendo eusten zion bereari. Halako batean, pilotu gaztetxo bati otu zitzaion hau esatea:

– Kapitain jauna, salba zaitetz. Alemaniak bi hilabete egin du honelako ontzi bat, baina hogeita hamar urte behar ditu zu bezalako kapitain bat prestatzeko.

Irmo eta ardura-eske esan zion hori, esan zionez, pilotu gazteak. Eta orduan bai, orduan amore eman zuen kapitainak.

Gerokorik ez dakit. Kapitaina, beharbada, fusilatu egingo zuten bere burua salbatu zuelako, edo, agian, handik aurrera

ere bere postuan jarraituko zuen beste barku bateko tripulazioaren arduradun. Auskalo!

Gertaldi honek beti gogorarazten dit prestakuntzaren balioa, argi erakusten baitigu prestakuntza oso balore berezia dela, ia norbera bezain norbera dela. Gauza askoren jabe den aberatsak bere etxeak, lurak, hegazkina, bitxiak, dirua eta enparauak, dituen gauza guztiak banatzerik izango du nahi dituenen artean; bere gorputzeko atalen dohaintza ere egiterik izango du, baita hori ere. Ez, ordea, ikasiak dituen trebetasunak: mekanikakoak, musikakoak, medikuntzakoak, hezkuntzakoak, familia gobernatzekoak... abilezia horiek ezin izango ditu banatu. Prestakuntza lortzeko denbora behar da, eta jarduna ere bai. Denbora eta jardunarekin norbera bilakatzeko dira.

Ezinbestekorik ez omen da mundu honetan. Egia dirudi horrek; izan ere, herrialdeetako lehendakari asko, hainbat mediku ospetsu, seme-alaba ugariko familietako guraso zintzo eta umezale anitz hil dira euren beharra zegoen sasoian. Ezinbestekorik ez badago ere, badira behar-beharrezkoak direnak edo, gutxienez, oso komenigarriak eta ordezkaitzak. Esaterako, kontatutako gertakizuneko kapitaina.

**Kaxildo Alkorta
Laguna**

JOXERRA INTERÍNEZ

BEHIN-BEHINEKO FUNTZIONARIOA

interinez@mindless.com



Administrazioa euskaraz aldizkaria sarean

Administrazioa euskaraz aldizkaria Interneten agertzeko modua aldatu dugu. Lehengo sistema, egia esan, zaharkituta gelditu zaigu eta, horregatik, zenbait hobekuntza egin ditugu aldizkariaren atalean. Hurrengo lerroetan azalduko dizuegu zeintzuk diren aldaketak.

Bereziki, hiru dira berrikuntza nagusiak, dagoeneko <http://www.ivap.euskadi.net> (<http://www.ivap.euskadi.net/r61-19937x/eu/t59aWar/comunJSP/inicio.do>) helbidean sartuta daudenak, antzeman ahal izango zenuenez. Batetik, harpidetzak egiteko sistema erabat berri du, hurbilagoa eta, aldi berean, eragingarriagoa izatea helburu. Bigarren berrikuntza nagusia bilaketak egiteko moduari dagokio. Aurreko egitura zurruna eta zaharkitua albo batera utzi eta bilatzeko sistema erabat irauli dugu. Azkenik, iradokizunen txokoa ere gehitu dugu. Izan ere, IVAPentzat, oro ohar, eta *Administrazioa Euskaraz* aldizkaria egiten dugunontzat, bereziki, zuon iritzia gure lanaren abiapuntua eta helmuga da aldi berean, eta horregatik orain arte baino garrantzi handiagoa emateko erabakia hartu dugu. Azter ditzagun atal hauek banan-banan. Aplikazioaren hasieran pantailaren ezkerreko menura jotzen badugu, hauek dira erabiltzaileak aurkituko dituen atal nagusiak:

1. Harpidetzak

Irudian ageri den formularioan sartuta daude behar ditugun datu guztiak. Asterisko batez adierazten dira zein datu diren ezinbestekoak harpidetza egiteko. Erabiltzaileak derrigor idatzi behar du bere identifikazio zenbakia. Horren bidez, aplikazioak harpidedun bakoitzari *erabiltzaile* eta *pasahitz* bana esleituko dizkio. Datu horiei esker, harpidedun bakoitzak behar dituen aldaketak egin ahal izango ditu bere harpidetzan. Era berean, harpidedunei SMS eta mezu elektronikoa bidez era guztietako argibideak emateko aukera ere eskaintzen digu aplikazio berri honek.

2. Kontsultak

Artikuluak	Alea	Data		
ABERTZALETASUNA AUZUPEAR, SABINO ARANAK ROOSEVELTI BIDLITAKO TELEGRAMA	57. ZENBAKIA	2007/07	Ikusi artikuluak	Ikusi alea
DONOSTIA OSPITALEAREN EUSKARA PLANA	57. ZENBAKIA	2007/07	Ikusi artikuluak	Ikusi alea
EKLIPSEA	57. ZENBAKIA	2007/07	Ikusi artikuluak	Ikusi alea
EKONOMIA BERRIAREN ERAGILEAK, BIRMOLDAKETAK HARAPEN ETA BERRIKUNTZARA, INERKETA BARRERA	57. ZENBAKIA	2007/07	Ikusi artikuluak	Ikusi alea
ENPRESATIK HARATAGO	57. ZENBAKIA	2007/07	Ikusi artikuluak	Ikusi alea
ERDARAZKO EZKER-IZENONDOEN EUSKARAZKO BALOKIDEAK	57. ZENBAKIA	2007/07	Ikusi artikuluak	Ikusi alea
EUSKAL HERRIA PREST AL DAGO TURISTAK HARTZEKO	57. ZENBAKIA	2007/07	Ikusi artikuluak	Ikusi alea
EUSKARAREN ERABILERAREN NORMALIZAZIOA GIPUZKOAKO FORU ALDUNDIAR	57. ZENBAKIA	2007/07	Ikusi artikuluak	Ikusi alea
HARATAGOKOAK	57. ZENBAKIA	2007/07	Ikusi artikuluak	Ikusi alea
HITZAK UZTARTZEN	57. ZENBAKIA	2007/07	Ikusi artikuluak	Ikusi alea

Gorago esan bezala, bilaketak egiteko sistema erabat berri-tatu dugu. Pantailan ikus daitekeen legez, lehengo aukerei aldizkaria kontsultatzeko bestelako funtzionalitate batzuk gehitu dizkiegu. Hortaz, aldizkariara jotzen duenak bilaketa zehatzagoak egin ahal izango ditu: egileka, urteka, gako hitzen arabera, eta abar.

3.- Iradokizunak eta inkestak

Iradoizunen txokoa, irakurleek egokitzen dituzten balorazioak, iritzia eta proposamenak egin ahal izango dituzte denbora eta espazio mugarik gabe, atala finkoa baita gure web gunean.

Inkesta, ordea, aldiro-aldiro esekiko dugu, eta bertan IVAPek zenbait galdera jarriko ditu aldizkaria irakurtzen dutenen iritzia jasotzeko.

Espero dugu aldaketa hauek guztiak denon onerako izango direla; bien bitartean, zuen iritzien zain gaude.

IVAPeko Administrazio Hizkeraren atala

Oinarrizko hezkuntza orokorrerako curriculum berria

Aurreko ekainean Tontxu Campos Hezkuntza sailburuak euskal curriculum berria aurkeztu zuen. Oinarrizko Hezkuntzaren curriculum hau ikasturte honetan hasi da aplikatzen eta, gauzak horrela, lehenengo aldiz ezarriko da curriculum bakarra derrigorrezko hezkuntza osorako. Bestalde, curriculumak sortu eta ezartzeko dekretua onetsi baino lehen, aintzat hartu dira Ikastolen Elkarteak eta ikastetxe publiko zein pribatuetakoa beste elkarte batzuek joan den ikasturtean egindako ekarpenak. Kontuak kontu, curriculum honek zeresan ugari eman du; hori dela eta, hona hemen agiri honen alderdi esanguratsu eta garrantzizkoenak:

Hezkuntza gaitasunak

Europako Parlamentuaren 2006ko irailaren 26ko gomendioz Europar Batasuneko hezkuntza sistema guztiei gehitu beharreko zortzi gaitasunak hartzen ditu aintzat proposamenak. Hartara, ikastetxeen curriculum proiektuak egokitzeko aldi bat irekitzen da hemendik aurrera, haien programazioetan helburuak, edukiak eta ebaluazio irizpideak integratzeko eta ikasleek Oinarrizko Hezkuntzaren aldian eskuratu behar dituzten gaitasunen mailak zehazteko; hona hemen gaitasunok:

- ▶ Oinarrizko gaitasunak sei oinarrizko hezkuntza gaitasun dituzte erreferentziarik hurbilena, ikastetxeen curriculum garapenean “kutsatu” beharrekoak: bizitzeko ikastea, ikasten eta pentsatzeko ikastea, elkarren artean komunikatzeko ikastea, elkarrekin bizitzeko ikastea, pertsona gisa garatzen ikastea eta egiten nahiz ekintzailea izaten ikastea.
- ▶ Oinarrizko gaitasunak horrela geratu dira definituta: kultura zientifikoa, kultura teknologikoa eta osasun kulturako gaitasuna, gaitasun matematikoa, hizkuntza gaitasuna, kultura eta arte gaitasuna, gizarte eta herritar gaitasuna, informazioaren tratamendua eta gaitasun digitala, ikasten ikasteko gaitasuna, autonomia eta ekimen pertsonala.

Oinarrizko gaitasunen proposamenaren justifikazioa

Euskal curriculumaren proposamenak beretzat hartzen ditu Europar Batasunak ezarritako gaitasunak. Europar Batasunaren gomendioak bete nahi ditu eta unibertsitateaz kanpoko irakaskuntzaren Europako erreferentzia eremua homogeneoa izatea nahi du.

Ikastetxeen antolakuntza autonomia

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak, ikastetxeek beren kasa antolatzeko eta kudeaketa lana aurrera eramateko autonomiaren alde hartutako ildotik, ikastetxeek erabaki garrantzitsuak hartzea proposatzen du aurkezten den curricu-

lumean. Erabaki horiek ondokoei eragiten diete, besteak beste: curriculum arlo eta irakasgaien edukiari, asteko orduen banaketari eta irakasle taldeek ikasleak kurtso batetik bestera igarotzearen zein haien titulazioen inguruan har ditzaketen erabakiei.

Astean bi ordutegi zehazten dira DBHrako. Beren hezkuntza proiektuak garatzen dituzten ikastetxeek 18 ordura arte izango dute lehen hiru kurtsoetan, indartu nahi dituzten irakasgai horiei eskaintzeko; halaber, erreferentziako ordutegi bat eskainiko zaie beren proiektua garatzen ez dutenei.

Erreferentziako ordutegiak matematikari eta zientziari eskaini beharreko orduak gehitzea planteatzen du, errefortzu handiagoa behar duten arloak direla ikusi baita txosten teknikoaren aurreko ebaluazioetan.

Ikastetxeen autonomia pedagogikoa

Aurkezten den curriculumaren ereduak erraztasunak ematen ditu ikastetxeek beren hezkuntza eta curriculum proiektuak aurkezteko. Halaber, ikastetxeek DBHko kurtso guztietan aukerako irakasgaiak izateko erraztasunak ematen dira; gainera, nahi izanez gero, irakasgai instrumentalen ordutegia indartu dezakete, planteamendu pedagogikoaren arabera eta ikasleek premiak kontuan hartuta.

Ebaluazioari dagokionez, ziklo mailako ebaluazio globala bultzatzen da Lehen Hezkuntzan eta arloen arabera DBHn, baina irakasle talde osoa da, kasu guztietan, azken kalifikazioari, beste kurtso batera igarotzeari eta titulazioari eragiten dieten erabakiak hartzen dituenak.

Hizkuntza tratamendua

Hizkuntzei buruzko legeak etorkizunari begira ezarriko dituen gaitasunen mailak finkatzeko duenaren zain, hizkuntzen curriculum espazioak (euskara, gaztelania eta atzerriko hizkuntza) diziplinen arteko tratamendua sustatu eta hizkuntza desberdinen edukiak haietako batean emateko aukera

eskaintzen du. Halaber, edozein hizkuntzatan emandako irakasgaiak zenbatu daitezke, hizkuntza gaitasunak eskuratzeko hizkuntza espazio lagungarriak diren aldetik.

Euskaratik salbuesteko eskaerei dagokienez, beste hezkuntza sistema batzuetatik datozen eta euskal hezkuntza sisteman gehienez ere ikasturte bakar batean egongo direnei onartuko zaizkie, ez beste inori. Gainontzeko kasuetan hizkuntza errefortzua eta curriculuma egokitzearen aldeko apustua egingo da, ikasle guztiek hizkuntza ofizialak behar bezala ezagutu ahal izateko Oinarrizko Hezkuntzaren bukaeran.

Ikasleen aniztasunaren trataera

Gai honi dagokionez, ondoko neurri hauek proposatzen dira: ikasleen taldekatze malguak, ohiko taldeetan hezkuntza premia berezietako ikasleei eman beharreko laguntzak, taldeen bikoizketak, aukerako irakasgaien eskaintza, errefortzuko neurriak, curriculumaren egokitzapenak, irakasgaiak arloetan integratzea, hezkuntzan esku-hartze espezifikoko programak, ikaskuntza erkidegoak, curriculum aniztasuneko programak eta unitateko irakasleen ratioa areagotzea.

Eskolara egokitzeko arazo larriak dituzten ikasleen kasuan edo gizarte edo kultura egoera ahuleko giroetatik datozenen kasuan, esku-hartze espezifikoko proiektuei eutsiko zaie. Proiektu horiek 13 eta 14 urteko ikasleei zuzenduta daude eta begirune handia diote inklusibitatearen printzipioari, helburua ikasle horiek berreskuratzea baita, eskolatzea DBHko 3.ean jarrai dezaten. Ez da inola ere planteatzen ohiko erreferentzia taldeetatik guztiz bereiz dauden taldeak sortzea.

Halaber, trebakuntza profesionaleko programen aukera ere proposatzen da eskola atzerapen larria duten ikasleentzat, 16 urte-tik aurrera. Programa horiek gaurko gizarte bermeko programen jarraipena izango dira, baina ikasleek Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan graduatuaren titulua lortzeko aukera edukiko dute, prestakuntza modulu orokor batzuk ikasten badituzte. Normalean, lan mundura sartzeko moduko oinarrizko lanbide trebakuntza lortzen dute programa horietako ikasleek.

Ikasleen ebaluazioa eta kurtso batetik bestera igarotzea

DBHko kurtso bakoitzeko ikasleek gehienez ere bi irakasgai utzi ahal izango dituzte gainditu gabe, hurrengo kurtSORA igarotzeko eta titulua eskuratzeko. Irakasle taldeak proposamen zehatza egin ahal izango du, hiru irakasgai gainditu gabe utzi arren, ikasle batzuk hurrengo kurtSORA pasatu eta titulazioa lor dezaten, baldin eta hurrengo kurtsoa arrakastaz jarraitzeko aukera badute. Edonola ere, hiru irakasgai horiek Euskal Hizkuntza eta Literatura, Gaztelania eta Literatura eta Matematikak badira, haien balio instrumentalarengatik ikasleak ezin izango dira hurrengo kurtSORA igaro, ezta titulazioa eskuratu ere.

DBHn behin bakarrik errepikatu ahal izango da kurtso bat eta, gehienez ere, etapa osoan bi aldiz errepikatu ahal izango da. Hala eta guztiz ere, sailak beste aukera batzuk hobesten ditu

gizarte edo kultura egoera ahuleko giro batetik datozen edo eskolara egokitzeko arazo larriak dituzten ikasleei begira: hezkuntzan esku-hartze espezifikoko proiektuak, trebakuntza profesionaleko programak edo curriculum aniztasunaren programak, esate baterako.

Diagnostikoaren ebaluazioa

Lehen Hezkuntzako bigarren zikloa eta DBHko bigarren kurtsoa bukatzean, diagnostikoaren ebaluazio bat egingo da Euskadiko ikastetxe guztietan. Ez du ikasle bakoitzarentzat ondorio akademikorik izango baina, prestakuntza eta orientabideari begira, baliagarria izango da ikastetxeentzat eta informazioa emango die familiei.

Eskuratutako emaitzekin, ikastetxeek behar diren programak antolatuko dituzte, ikasleari eman beharreko arreta hobetzeko eta oinarrizko gaitasunak lortuko dituztela bermatzeko.

Ikasle etorkinak

Laguntza zehatz eta espezifikoa emango zaie euskal hezkuntza sistemara berandu sartu diren ikasleei, hizkuntza ofizialak behar bezala menpera ditzaten.

Atzerapen larria duten ikasle etorkinak, Euskal Herrira iristean gutxienez 15 urte badituzte, zuzenean sartuko dira trebakuntza profesionaleko programetara, lan munduan errazago murgil daitezten.

Tutoretza eta orientabidea

Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak tutoretza lanaren aldeko apustua egin nahi du Oinarrizko Hezkuntzan. Horretarako, 6tik 16 urtera bitarteko kurtso guztietan ikasleek asteko ordutegian tutoretza ordu bat edukitzea erabaki du, familiekin lankidetzan programa espezifikokoak garatzeko.

Lehen Hezkuntza eta DBH bukatzean, tutoreek banakako txosten bat prestatuko dute, familiei informazioa emateko eta ikasleei ikasketak jarraitzeko orientabidea eskaintzeko.

Honaino, beraz, curriculum berri honen alderdi nagusiak. Gure ustetan, euskal errealitate zehatzetik abiatzen da; Europako erreferentzia esparrua hartzen du aintzat; bateratua, koherentea eta integratua da; hezkuntza gaitasun orokor eta oinarrizkoak sartzan ditu; ikastetxeei autonomia ematen die; familien parte hartzea sustatzen du; eleaniztasunaren alde egiten du eta solidaritatean nahiz berdintasunean oinarritzen da.

Juan Jose Agirrezabala
Hezkuntza Berritzatzeko zuzendaria
Hezkuntza, Unibertsitatea eta Ikerketa Saila



Mundua on line

Zattoo, edo nola ikusi telebista ordenagailuan

Zattoo, telebista ikusteko aukera berria da. Ordenagailura jaitsitako programa baten bidez, *Hertz* uhinez emititzen den telebista katea *streaming* moduan ikus daiteke. Horretarako, banda zabaleko konexioa izatea ezinbestekoa da. Mac OS X, Linux, Windows 2000, Windows XP eta Windows Vista plataformetan erabil daiteke.

Sistema hau uztailean aurkeztu zuten gure artean. Ez du hardware berezirik behar, eta aplikazioa dohainik eskura daiteke. Erabiltzaileak programa deskargatu ondoren, telebista ikus dezake bere ordenagailuan. Momentuz kate hauek ikus daitezke: TVE1, La2, Antena3, Cuatro, Telecinco, La Sexta, Teledrepte, Canal 24 Horas, Deutsche Welle, France 24, SF Info eta TVP Polonia.

Zattoo, uztailearen bukaeran 100.000 erabiltzaile zituen Espainiako Estatuan, eta Europako beste hiru herrialdetan (Erresuma Batua, Danimarka eta Suitza) beste 500.000; guztira 50 kanal baino gehiagoko eskaintza ematen du. Laster Frantzia, Alemania eta Austriara nahiz beste leku batzuetara zabalduko da. Telebista kateek, urritzen ari zitzaizkien ikusleak berriro bereganatzeko aukera izan dezakete oraingoan.

Idea eta enpresa Michiganeko Unibertsitatean sortu ziren, ikertzaile talde batek denbora errealean irudiak emititzeko teknologia iraultzailea garatu zuenean. Interneten emititu daitezkeen kalitaterik handienean egiten du **Zattoo**, eta telebista kate guztiak ikusteko *interface* bakarra eta sinplea edukitzea lortu du.

Programa hemendik jaso daiteke: www.zattoo.com

Luis Elizondo
luis@hegoa.info

W www.merkatari.net

Web gune berri honek Donostiako merkataritza eta ostalaritzan sortzen diren euskara beharrei erantzun nahi die. Donostiako Euskararen Udal Patronatuak jarri du martxan, hain zuzen ere, eskaintzen dituen diru-laguntzen berri emateko, testu laburrak itzuli edo zuzentzeko, zalantzak argitzeko, albisteak zabaltzeko, hiztegiak eta idazkiak on line kontsultatzeko, e.a.

I ATE (Europako Terminologia Elkarreragilea)

IATE datu base bat da, Europar Batasunean erabiltzen den terminologia baliozkotua biltzen duena. Anbiguotasunik gabeko testu argiak idazteko fidagarritasuna eskaintzen duenez, legeak errazago lantzeko eta herritarrekin argiago komunikatzeko bideak zabaltzen ditu. Hala, 23 hizkuntzatan eskaintzen da, eta 8,7 milioi termino, 500.000 laburpen eta 100.000 esaera biltzen ditu.

Europar Batasuneko erakundeetako itzulpen zerbitzuak 2005ean hasi ziren datu base hau erabiltzen idazkien kalitatea hobetzeko, eta 2007ko ekainetik aurrera edozeinek kontsulta dezake, ez bakarrik Europar Batasuneko erakundeekin lotutako adituek.

Datu base hau elkarreragilea da, hau da, Europar Batasuneko erakundeetako edozein itzultzailek erantsi edo gaurkotu dezake informazioa. Aldaketen kalitatea bermatzeko, aldaketak egiterakoan, baliozkotze ziklo bat sortzen da, hau da, erakundeetako hizkuntza zerbitzuetako terminologoen baliozkotzen dute erantsitako edo aldatutako informazioa.

H izkuntzalari Gazteen XXIII. Nazioarteko Biltzarra

Gironako Unibertsitateko Letren Fakultatean izango da 2008ko martxoaren 26, 27 eta 28an. Bertan, Hizkuntzalari-tza lantzen ari diren hirugarren zikloko ikasleek parte hartuko dute, baina oraindik doktore ez direnek bakarrik aurkeztu ditzakete lanak. Ikerlanak aurkezteko epea abenduaren 21ean bukatuko da. Informazio gehiago izateko deitu telefono honetara: +34 972 418 106, edo idatzi helbide elektronikoa honetara: ajl2008@udg.edu

G *lottopedia*

Glottopedia, wikipediaren antzera, sarean dugun entziklopedia bat da, baina wikipedia ez bezala, entziklopedia oso berezia da; hau da, hizkuntzalariak hizkuntzalariarentzat egindako entziklopedia. Proiektuaren editore nagusiak Martin Haspelmath eta Sven Naumann hizkuntzalari eza-gunak dira. Sareko entziklopedia berri honetan aurkituko ditugu, besteak beste hiztegi artikulak, hizkuntzalarien biografiak eta hizkuntza bakoitzari buruzko artikulak. Momentuz artikulak ingelesez eta alemanez kontsultatu daitezke, baina editoreen asmoa da laster beste hizkuntza batzuetan ere eskaintzea: italieraz, frantsesez, errusieraz, suedieraz, txineraz, japonieraz eta gaztelaniaz.

Gaztelu ... gatxe

“Enpresa publikoetako gitxeteetan, hiritarrak gaur egun zerbitzatzera ateratzeko, zinez osagarri onean behar da eta bere izaeraz ez sobera ahalke” erran zuen K. andreak, kopeta ezkel eta hasperena askatzen zuela. Lankideak irri egin zion muturrera. Aldion K zen erasotua, baina noiztenka X zebilen uholdearen minean. Nehor ez zen salbatzen:

–Sensibleegia zara.

–Ni?

–Hogei urte badu lanarekin teman zabiltzala eta hausten zara alferra eta inutila zarela aditzen duzun oroz.

–Neurekiko-erdainu zerrenda bat baizik ez naizelako agian!

–Horixe.

Telebistak edo boterearen aztalpeko prentsa osoak, funtzionario auher eta aberastasun komunaren klikatzaile lotsaga-beak goraki salatzen zituen. *Zenbat balio du* emankizunean adibidez, funtzionarioik apalaren soldata nahitara zimnokatzan zen, erakutsiz nolako gastuak zituen kolektibitatearentzat hain emaitza gutxirentzat alabaina, eta *show*-aren biharamunean, bezeroak enpresa publikoko gitxetera zetozen jeloskeriaz eta gorrotoz hantua, gerlara bezala, zernahi erranka lehertzeko prest. Gainera, funtzionarioak berak, berea apalesteko ohitura zeukala, mass medietako irakaspen egunero mailukatuak ez ziren inozoak, inondik ere. Klienteak arrazoi zuen:

–Igor iezadazu arduraduna. Ez da horrela pasatuko. Zure lekuz aldarazteko boterea daukat nik.

Behe mailako funtzionario konplexatuaren aldean, ehun mila aldiz haboro pagaturiko aurkezleek errepikatzen zuten estatu liberalaren *kretoa*: nagusien nagusi ohiak noizbait deklaratu zuenaren ildotik, bizitza hitsa, txiki-txikia eta baliogabea daraman jendaila gris horren beharrik ez dugu, edo funtzionarioek aberastasunik ez dute sortzen, dauzkaten pribilegio itzelekin ez dago hauek baino klase bekaitzagarrik: utikan! Edo zergatik mantendu gutun-banaketa zentro bat baserri gune desertatuetan, lau zahar konkorrak eta bost belerentzat? Eta bazen halaber, ikusleko aztoratuaren burumimetan suge-moneterario baten pare zigi-zagaka aitzinatzen zen ideia argisuren bat:

–Hemendik at nehork ez du bizitza guztirako enplegurik opari ukanen, bukatu da garaia eta funtzio publikoa errefor-

matzean prekaritatearen legea sartuko dugu. Gure herrian pribilegioak agorrilaren 4eko gauean ezeztatu ziren, oroitu lagunok!

Diskurtso hori ahoan zeramatenak ministroak ziren, telebistako presentatzaileak, kazetariak, star egiturako munakak, abeslariak, famatu okituak orobat. Eskolak, kirol zelaia eta formatzaileak, unibertsitateak demagun eskura eduki ondoan, zentima soila pagatuz, futboleko txapeldun bilatzean gizartearen oinarriko parte hartzea ahanzten zuten eta *self made* zirela ustez, atzerrietara zihoatzen hazi zituen Estatuari zergarik ez ordaintzeko... Sikodrama katodikoetaz gain, *légion d'honneur* papoan zebiltzan ospetsu horien egitatea nazkagarria zen.

Bizkitartean, funtzionarioak laidoztatzen zituztenak ez ziren ohartzen, aho-zabaletaz berdinki nola mesprezatuak ziren: bazitekeen bospasei udaberri herritarrak globalki berrisail mediatiko bakoitzean *zirika morala* deitu litekeena paitratzen zuela. Eta aldion behereko herresta bedera zen debaldea, inutila, karioegia, auherra, baliatzailea, langabezia-saria bezain lana ukaiteaz gutxietsia, beti eri eta beti bakantzetan. Karrikan elkarrizketa gaiztoki begiratzen zioten, pantailak seinatu baliatzailea, bestea zitekeelakoan derrigor, ez norbera.

Gobernuak bazterretan hautemaiten zuen den-mendrenko auhena politikoki erabiltzen zuen, ideologizatzen zuen, popularen aurka altxatzen. K momentu garratzean zegoen: akuilukadak larrumenean nabari zitzaizkion bezeroak sentitzen zuen erraz ausik zezakeela, hots, atrebi eta mendeka zitzaiokeela. X-ekin mintzo zen:

–Zerbitzatzeko nago eta ez insultatua izateko.

–Egoera ez da konponduko, etorriko diren aldaketa erraldoekin.

–Ez dugu jendearen kexua guk jasaiterik ezta?

–Aski zuten ongi bozkatzea...

–Baina, alor pribatuaren distirek, ele ederrek, mugimendu lilurakorrek eta nortasun progresista bermatzen digun estresak erakartzen gaituzte, menturaz jendetza zahartzenago eta gehiago.

Itxaro Borda
Idazlea

Juan Ignazio Vidarte, Guggenheim Bilbao Museoaren zuzendaria:

“Datozen hamar urteotan eskakizun handiei egin beharko diegu aurre”



Hamar urte bete ditu urriaren 19an Guggenheim Bilbao Museoak. Eta aurten 10. urteurren garrantzitsu hau ospatzeaz gain, Eusko Jaurlaritzak Euskaldun Unibertsalaren saria eman berri dio, gure herriaren irudia munduan barrena zabaltzeko egindako proiektio lana eskertu nahian. Alabaina, hamar urte baino gehiago dira Juan Ignazio Vidarte Thomas Krensen eta Frank Gerhy-ren ideia huts hartan parte hartzen hasi zela. Sortze beretik ezagutzen du asmoa. Gauzatzen lagundu du. Zuzentzeko ardura izan du. Orduz gero, Vidarteren bizi proiektua da museoak. Hortxe da maskorra oraindik, lehen bezain erakargarri. Azal huts gabe, ordea, haren baitako arimaren zaindaria da Vidarte. Atzotik gaur eta biharrera jardun lezake hizketan, Guggenheimi igartzen ez dizkiogun gabezien aitortza eginez, museo ideala helburu.

Izan ere, Bilboren ikur nagusietakoa da Guggenheim Museoa. Hiria nazioartean aurkezten du, irudi ikusgarriaren jabe da, batean eta bestean ageri dena. Hasiera-hasieratik atzerrian zein gure herrian bertan izan du ezin neurtuzko eragina.

Balantzea egiteko ohitura duzue urtero-urtero. Batetik, aldi baterako erakusketen balorazioa egiten duzue, eta, bestetik, behin betiko bildumari dagokiona. Hamar urtean eta arlo horietan, zeintzuk izan dira museoaren lorpenik handienak?

Erakundeari dagokionez, artea eta kultura herritarrei eta bisitariari hurreratzen dien aldetik, lorpenik handiena hauxe izan da: hamar urte hauetan Euskadin kalitate mailarik goreneko kultura plastikoa erakusteko aukera ematea. Nazioartean ere maila handikoa da erakutsi duguna. Atzera begirakoetan, XX. mendeko bigarren erdiko artistarik garrantzitsuenen lanak erakutsi ditugu: Rauschenberg, Txillida, Oteiza, de Kooning... Horiek, eta beste batzuek, erakusketa handiak izan dituzte, ibilbide erakusketak esango genuke. Horien bidez, egileen bizitza osoko lanak ikusi ahal izan dituzte bisitariak. Bestetik, museoak XIX. eta XX. mendea bera ere gainditzen duen esparrua landu du: bildumarena, alegia. Txinako kulturari buruzko erakusketa egin da, edo Errusiari eskainitakoa, edo artista funtsezko batzuen lan jakin batzuenak: Calbergh, Richard Serra, Kiefer... Hamar urte hauetan aldi baterako berrogei bat erakusketa egin dira, eta beste berrogei aurkezpen, berriz, bilduma iraunkorari dagozkionak. Horrek gure helburuak betetzen lagundu digu, jakina.

Museoaren zeregin hezitzailea azpimarratu izan duzue beti.

Museoaren zeregin guzti-guztietan oinarritzea da, eta betetzen ari da. Hara, bisitarien herenak museo bisitatzeaz gain, hezkuntza ekintzaren batean hartzen du parte. Horrek, noski, bisitak berak baino gehiago irakasten du.

Bilduma iraunkorraz ari zinen...

Bilduma iraunkorari dagokionez, museoak hamar urte hauetan hainbat erosketa egin ditu eta uste dut oraintxe hasi dela garrantzia hartzen. Bilduma XX. mendeko bigarren erdiaren erakusgarri aski egokia da: Mark Rothko, Bourgeois, de Kooning, Rosenquist... edo Serra, Txillida, Anselm Kiefer, Oteiza... Bestalde, baditugu lan zehatz batzuk museoaren espazio jakin batzuetarako erosiak... Horrekin esan nahi dut bilduma nortasun berezia hartzen ari dela eta, hori ez ezik, indar eta garrantzia ere bai. Espero dut denboraren joanean bide horretan segituko duela; izan ere, geroari begira, elementu horiek erakundearen nortasun agiria izango dira. Euskal artisten presentzia ere segurtatu nahi nuke: belaunaldi seminalekoen lanak –Oteiza, Txillida...–, eta belaunaldi berrikoenak: Txomin Badiola, Juan Luis Moraza, Cristina Iglesias, Dario Urzay, Koldobika Jauregi, Julia Perez... Epe jakin batean egin dugu hori dena, hamar

urtean. Hamar urte norberarentzat urte asko izan litezke, baina museo baten bizian oso epe laburra da.

Ez dakit jabetzen garen...

Museoa asmo handiko proiektua izan zen, bultzada berezi bat ere izan zuen... Balantzea egiten ari gara, hamar urte bete ditugulako, baina museo batek, berez –ez dakit betiereko sortzen den, baina hortxe-hortxe– etorkizun mugagabea du. Museo baten bizian hamar urte nerabezaroa ere ez dira!

“Bultzada berezi bat” esan duzu zuk. Nik presioa usteko nuen.

Bai, eta ulertzekoa ere bada, museoa zein egoeratan eta nola sortu zen kontuan hartuz gero. Egoera hura gabe, bestalde, litekeena da museoa sortu ez izana. Alde horretatik, premia eragile handia izan dugu guk ere. Garai zaila zen. 1991n egoera korapilotsua zen gure herrialdearentzat: kinka ekonomiko larrian ginen, krisialdi industrialaren garairik txarrean –langabezia, birmoldapenak...– eta, Bilbori berari dagokionez, identitate krisia eta guzti genuen, gainbeheran geunden, etorkizuneko proiektuen gaineko argi handirik gabe... Horrek asmo handiko zer edo zer egin beharra ekarri zuen. Egoera irauli behar horrek presio handiagoa ekarri zuen, eta eztabaidaren tonua zakartu zen, trinkotu, krisiagatik beragatik eta egoera historikoagatik. Asmo eta presio handiarekin hasi zen museoa. Baina proiektua abiarazten jardun genuen denok genekien zer zen proiektu hau, bagenekien “nahikoa” baino kalifikazio handiagoa lortu behar genuela, “goren” behar genuela helburu guztietan, bai hezkuntzazkoetan, bai irudi proiektioari zegozkionetan, bai eragin ekonomiko, urbanistiko eta sozialetan. Helburu sorta bat zuen museoak, eta denean ere kalifikaziorik onena behar genuen!

Industria krisia aipatu duzu. Biolentzia, ez. Atentatu saioa izan zen museoa ireki zen aurreneko egunean...

Bai, horrek dakartzan ondorio negatibo guztiekin, etikoa ez ezik. Biolentziak egoera ekonomikoa zailtzen du, eta herrialdearen irudi proiektioari dagokionez, berriz, ez du batere laguntzen, alderantziz baizik. Gainera, biolentzia gaur egungo testuinguruan daukagu, mundu globalizatuan, herrialdearen eta hiriarren proiektioa guttiz funtsezkoa den mundu honetan. Ez




dira bazterreko kontuak, ez dira luxuak, ez, gure etorkizunaren bidean oinarri-oinarrizko alderdiak baizik: zein erataria jokatzen dugu munduan? Nola ikusten gaituzte munduan? Garrantzi handiko galderak dira. Indarkeriak eta biolentziak ez dute galdera horiei erantzun biribilik ematen laguntzen.


Globalizazioa dela eta, museoak izugarri lagundu du herrialdearen irudia munduan zabaltzen...

Museoak bere helburuak bete ditu, oso epe laburrean bete ere, mundua gero eta globalizatuago dagoelako. Globalizazioak baditu bere alde on eta txarrak. Guri dagokigunez, mundura heltzen laguntzen digu, bitartekaririk gabe. Duela berrogeita hamar urte pentsaezina izango zen munduari hitz egitea, ohiko bideei itzuri eginez, hau da, Madriletik iragan gabe. Egun, besterik da, eta bestelako egoera globalizatuari esker bete ditu museoak bere helburuak, epe aski laburrean. Horrek, jakina, euskaldunoi lagundu digu globalizazioaz jabetzen, diskurtso eta kontzeptutik harago: begien bistako errealitate bat dela erakusten digu.

Nork esan! Bilbo turistaren pasealekua da gaur egun...

Bilboko paisaia aldatu egin da, baina ez huts-hutsean museoarengatik, baita bisitariengatik ere. Garai batean, ez zen inor ikusten praka motzetan, mapa eskuan hartuta... Orain, aldiz, ohikoa da. Eta horrek, ikuspuntu ekonomikotik duen eraginaz kanpo, garrantzi soziologikoa du, hiria bera ere kosmopolitagoa egiten duelako. Museoa ez da garrantzizkoa, besterik gabe, jendeak haren gaineko doktorego tesiak egiten dituelako, ez: jendeak bizi egin behar du museoa, eta proiektua sinetsi. Osterantzean, ez du balio. Nire ustez, museoaren ondorio inportanteenetakoa herritarrengan duen efektu psikologikoa da:





proiektu endogeno bat; ez da Expo bat, ezta olinpiadak ere. Hemengo erakundeek erabaki eta abiarazitako egitasmoa da, lehenengo momentutik proiektu konplikatu –gutxienez, konplikatu–, arrisku handikoa esango nuke, baina bere helburuak betetzen ari dena eta, are gehiago, aurreikusi baino neurri handiagoan. Efektuak kalean ikusten dira, begi bistan daude... Horrek jendeak bere baitan konfiantza irabaztea dakar; proiektu berriei ekiteko konfiantza, besteak beste. 80ko eta 90eko hamarkadetako sentsazioa guztiz kontrakoa zen. Zeinahi albiste zen txarra. Egoera ez zen ona, badakigu, baina zernahi gertatzeak egoera areago bihurrituko zuelako ustean bizi ginen. Hori irauli dugu, oso prozesu pedagogikoa izan da, eta emaitza, berriz, horixe, proiektu berriei heltzeko konfiantza eskuratu izana.

Proiektu hutsa, ideia hutsa zenetik ezagutzen duzu Guggenheim Bilbao museoa. Hamar urte dira, berriz, asmoa gauzatzen ari dela. Hamar urte barru, non eduki nahi zenuke museoa, zein fasetan?

Galdera ona duzu hori, eta oso zaila erantzuten. Nik nahi nuke hamar urte barru museoa gaur egun daraman bideari segitzea, hau da, erakunde sendotua izatea –identitate ezaugarriak errotuak izango dituena–, bilduma osatzen jarraitzea, Europako erreferentziatzeko kultura erakunde izatea oraindik, herriaren proiektzioa den aldetik ere eragina izatea, herri honen azpiegituren eraldaketaren isla izatea... Alabaina, orain dela hamar urteko mundua eta gaur egungoa zeharo dira desberdinak, baita kultura erakundeentzat ere, eta, ondorioz, hamar urte barru izango dugun mundua ere oso izango da bestelakoa. Bestalde, museo honek beste zenbait azpiegitura eragin ditu, antzekoak nahi baduzu, eta lehia gero baino gero handiagoa da. Horrek, nahitaez, eskakizun maila areagotuko du, baita ideia berriak eta interesgarriak sorrarazteko beharko den baliabide kopurua ere. Bildumako lanen bidez edo maileguan uzten dizkiguten artelanen bitartez, museoek istorioak kontatzen dizkiete bisitariari. Eta istorio horiek arian-arian interesgarriago egin eta gero eta modu sofistikatutagoan kontatu beharko ditugu, bisitariak ikus-entzuzkoen inguruan duten kultura eta eskakizun maila ere gero eta handiagoak izango direlako. Era honetako erakunde guztiak norabide berean ari dira lanean eta, beraz, uste dut datozen hamar urteek asko eskatuko digutela. Ongi ari garela uste dut, baina eskakizun handi-handiekin egin beharko diegu aurre.

Zer falta du Guggenheim Bilbao museoa, zure museo ideala izan dadin?

Eransteko asko du museoak; gaintitu gabeko hainbat irakasgai, esango nuke. Adibidez, gurea bakarrik ez den gaintitu gabeko irakasgai bat: bertoko herritarrentzat erakunde hurrekoagoa izan dadila nahi nuke. Euskadiko biztanleek gehien bisitatzen duten museoak gara Euskadin, baina EAEko bisitariak ehuneko hamar dira. Milioi bat bisitari ditugunez, erkidego honetako ehun mila lagunek bisitatzen du gure museoak. Kopuru handia da hori gure biztanleria kontuan hartuz. Hala ere, bertoko lagun gehiagok bisitazioa nahi dugu. Izan ere, ehun milako hori bisitei dagokie, ez bisitariari, eta, beraz, horien artean asko dira behin baino gehiagotan datozenak. Hortaz, baliteke, bisitari kopurua ez izatea hain handia gurean. Beste irakasgai bat, gaintitzen zaila, gure herria den bezalakoa delako, erakundeari dagokiona: museoak ez da herrialde erakundetzat hartzen; Bilbori lotuegi ikusten dute euskal herritarrek. Nire iritziz, ordea, euskalduna Irungoa izan edo Agurainoa izan, beretzat hartu behar luke gure proiektua. Gure lurralde errealtatea oraindik, zoritxarrez, ez da Bernardo Atxagak aipatzen duen Euskal Hiria... Museoak ez du hori aldatuko, baina gaintitu ez dugun irakasgai da. Beste irakasgai bat, gaintitu ez duguna: museoak hezkuntza ekintza gehiago bideratzeko ahalmena izatea nahi nuke. Eskaintza baino askoz handiagoa da eskaera; eta eskaintza handia da, horratik! Urtean 50.000 ikasle eta hezitzaile baino gehiago igarotzen dira museotik, baina beste hainbat ikasle ezin harturik geratzen gara. Jendeak ez dakien kontu bat esatearren, 50.000 horietatik bosten bat Frantziatik datoz; jakina, hurrekoak dira gehienak, Iparraldekoak eta Frantziako hego-mendebaldekoak. Jendeak ez dakien beste kontu bat esatearren, 50.000 horietatik erdia Euskaditik kanpo datoz. Hori oso positiboa da museoarentzat, baita herrialde ikuspegitik ere. Izan ere, herri honetako erakunde batek erakarmen handia du erbestekoengan. Horrexegatik diot eskaintza handiagoa behar dugula. Irakasgai gehiago? Museo handia dugu baina, jatorrizko proiektua gogoan harturik, espazioa murriztu zitzaion. Ondorioz, programazioa hain sarri aldatzen duen museoak ekintzen erritmoari eusteko oztopoak ditu. Eta erritmo horri eustea uste baino inportanteagoa da, jendea behin eta berriz etor dadin eta bisitaldi bakoitzean zer edo zer desberdina ikus dezan. Esan nahi dut, museoak irekita egonagatik, zenbait espazio itxita eduki behar ditugula aldi batez, erakusketa bat desmuntatu eta beste bat jartzeko. Espazio gehiago behar genuke. Seguru askorik, jatorrizko proiektuaren aldean galdu genuen ehuneko hogeita bost edo hogeita hamar huraxe. Horrek lagunduko luke erakusketarik erakusterako trantsizioak bisitariarengan eragin negatiborik ez izaten. Gaintitu gabeko irakasgai asko, beraz...

Hortaz, badugu nora jo datorren hamar urtean...

Bai, horixe. Proiektuak baditugu...

Miel A. Elustondo
Idazle eta argazkilaria

Mendetasunaren Legea, laguntza sistema eratzea helburu

Aspaldi ari dira lanean erakunde eta elkarteak

Madrilgo Kongresuak Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko Legea –hau da, Mendetasunaren Legea– onartu izanak plazara ekarri du gaia beste behin. Euskal Autonomia Erkidegoko herri administrazioak (Eusko Jaurlaritza, foru aldundiak eta udalak) ez dira hasiberriak mendetasun egoeran bizi diren pertsonen laguntzen. Mendetasunaren Legeak, dena den, aro berri bat abiarazi du...

2006ko azaroaren 30ean Mendetasunaren Legea onartu zuen Espainiako Kongresuak. Urteberri egunean jarri zen indarrean, mailaka bada ere. Legeak ziurtatzen duenez, beren kabuz moldatu ezin diren adinekoek eta elbarriek botere publikoen arreta jasoko dute. Era berean, herritar guztien eskubidea izango da, estatuak aitortu eta bermatutakoa.

Legeak, bestalde, Mendetasun Sistema eratzea ekarri du, hau da, gizarte zerbitzuak eta laguntza ekonomikoak arautu ditu, mendetasun egoeran dauden pertsonen balia ditzaten. Legearen onuradunen artean ageri dira, adibidez, adinekoak, mendetasun egoeran dauden elbarriak, elbarritasun intelektuala eta gaixotasun mentala daukatenak edota elbarritasun larria duten 0 eta 3 urte bitarteko haurrek. Zerbitzuei dagokienez, berriz, legeak etxer etxeko laguntza ez ezik tele-asistentzia, eguneko zentroak eta egoitzak ere aurreikusi ditu. Horrekin batera, legeak era askotako prestazioak –ekonomikoak zein teknikoak– agintzen ditu.

Dena den, mendetasuna ez da, legeak dioenez, bat eta bera kasu guztietan. Legeak, esaterako, hiru mendetasun maila ezarri ditu: mendetasun arina, mendetasun handia eta mendetasun larria, pertsonaren autonomiaren eta beharrezko dituen zainketa eta laguntzen neurriaren arabera.

Mendetasunei arreta eskaintzeko sistema 2007ko Urteberri egunean indarrean jarri arren, urratsez urrats ezarriko da. 2007an, mendetasun larria duten pertsonentzako arreta jarri da abian. Ondoko urteetan, 2008tik 2013ra bitartean, mailaka, gainerako sistemak abiatuko dira, 2015ean sistema guztiz ezarri arte.

Autonomia Erkidegoen egitekoa

Ez dago Mendetasunaren Legearen garrantzia ukatzen duenik. Espainiako Gobernuak “legegintzaldiko legerik garrantzizkoena” zela adierazi zuen, hitzez hitz. Euskadiko herri

administrazioek, berriz, elkarrekin egindako adierazpenaren bidez, garrantzi horixe azpimarratu zuten, “eta gizarte zerbitzuen arloko etapa berrian aurrera egiteko geure gain hartu dugun ardura berretsia”.

Estatuak mendetasunari aurre egiteko sistema sortu baino lehen ere, lanean ari ziren EAEko herri erakundeak; are gehiago, abiarazia zuten gizarte zerbitzuko sistema publikoa. Agerikoa denez, horren zeregin garrantzitsua oso aintzat hartu beharrezkoa da estatuak sortu asmo duen sistemaren egitura bereziaren barnean. Izan ere, onuradunak izan litezkeenek bizi diren autonomia erkidegoko gizarte zerbitzuen ebaluazioa eskatu beharko dute beren mendetasun maila zehazteko; ondoren, gizarte zerbitzu haien bidez jasoko dute beharrezko prestazioa.

Inondik ere, gizarte zerbitzuak ageri dira legea garatuko duten protagonista nagusi gisa. Horri dagokionez, badira legerari hainbat muga ikusten dizkietenak. Batzuek esango dute mendetasunaren auziari erantzuteko ardura duten sistema publikoetako bat besterik ez duela garatzen, hau da, gizarte zerbitzuena. Beraien argudioen arabera, osasun zerbitzuen, pentsio sistemen eta, oro har, gizarte babeseko egitura osatzen duten kideen azaleko aipamena baino ez du egiten legeak. Beste batzuek, aldiz, zaintzaileen kezka agertu eta azpimarratu dute emakumezkoak direla, eta ez gizonezkoak, mendetasun egoeran daudenei laguntzen jarduten duten pertsona bakarrak. Horien ondoan, badira “eta nork zaindu behar ditu zaintzaileak?” galdetzen dutenak. Edota legea behar bezala gauzatzeko dirurik izango ote den galdezka ari direnak.

Legeak, besteak beste, orain artean nola hala eta ahal zen modurik onenean –diru gutxirekin baina borondate handiarekin– bete diren gabeziak bistaratu ditu. Adina, gaixotasuna edo ezintasunen bat dela eta, mendetasun egoeran daudenen behar eta merezi duten arreta jasotzea da helburua.



Esther Alvarez Prieto **Zaintzea (Senide zaintzaileei laguntzeko** **Bilboko udal zentroa)**

Mendetasun egoeran dagoen pertsona, gehienetan, senide bakar batek zaintzen du. Zaintzaileok emakumezkoak dira, oro har, 60 bat urtekoak, zaintzen duten pertsonarekin batera bizi dira, normalean ez dute egiten dirua ekarriko dien lanik eta, aldi berean, bestelako lanak ere egiten dituzte familian: seme-alabak zaintzea, adibidez. Bestalde, gainerako senideek zaintze lanetan laguntzen ez dutelako edo gutxi laguntzen dutelako, hartzen dute beren gain ardura hori.

Arian-arian, zaintzaileontzat problema bihurtzen da inor zaintzea, gero eta denbora zein energia handiagoa eskaini behar diotelako, nahiz eta gehien-gehienek beren borondatez bereganatzen duten senidea zaintzeko ardura, eta poztasun ere gertatzen zaion.

Horiek horrela izanik ere, guk, Zaintzea elkartekook, senide zaintzaileei laguntzeko hainbat zailtasun, neke eta oztupo nabarmendu nahi ditugu. Alde batetik, gaitzakeria fisikoa; hau da, nekea, giharretako arazoak, etab. Beste alde batetik, gaitzakeria psikologikoa; esan nahi baita, tristura, antsietatea, erruduntasun arazoak, etab. Ezintasun horiek, dudarik gabe, mendetasun egoeran dagoen pertsonari etengabe lagundu behar eragiten ditu. Hori ez ezik, familia giroko haserreak eta diru zein lan arazoak ere tartean izaten dira. Azkenik, lagunartea ere murrizten da eta horrek bakardade sentipen sakona eragiten die zaintzaileei.

Senide zaintzaileok, era berean, normalean ez dute gizarte baliabideen berririk izaten. Alegia, ez dakite zein eratarik erantzun zaindapean dituzten pertsonen patologiei. Horrek, nahitaez, segurtasun eza sorrarazten die zaintzaileei.

Gure iritziz, oinarri-oinarrizkoa da bateko eta besteko instantzietatik zaintzaileei laguntzeko tresnak garatzen segitzea. Hau da, legeak eta arauak behar ditugu, horietan mendetasun egoeran dauden pertsonen beharrik eta beraien zaintzaileenak ere jasotzeko. Mendetasun egoeran daudenei dagokienez, laguntza eta arreta neurri zehatzak arautu behar dira, pertsona bakoitzak beharrezko duen laguntza jaso dezan, izan zerbitzuak edo haien antolaera egokia; hau da, eguneko zentroak, gaueko zentroak, egoitzak, etxeko laguntzak... Zaintzaileek, bestalde, informazio eta orientabide zerbitzuak behar dituzte, prestakuntza zein laguntza psikologikoa jasotzeko.

Hori egin beste biderik ez dago zaintzaileek betetzen duten zeregin lan garrantzizkoa aitortzeko eta beraien bizi kalitatea –bai eta zaintzen dituzten pertsonena ere– hobetzeko.



Mari Luz Esteban **Zaintzarako euskal sistema publikoaren** **aldeko plataforma**

Madrilgo Gorteek onartu duten legeak hutsune asko ditu, baina gauza on asko ere bai. Gaia aztergai eta eztabaidagai jartzea bera ez da makala. Eskubide subjektiboak hitz egiten hastea garrantzizkoa da, norberak zaindua izateko duen eskubideaz jardutea, alegia. Mendetasunaren Legea onartu denetik, mahai gainean dago eskubide hori. Guztioi aitortzen zaigun eskubidea da, adin edo gaixotasunagatik denok zaindu beharko baikaituzte egunen batean.

Gure iritziz, ordea, bada besterik. Emakumeok ez gaude konforme leporatu diguten betebeharrarekin. Gure ustetan, badugu ezetz esateko eskubidea, ez dugula zaindu nahi, edo noraino zaintzeko prest gauden zehazteko eskubidea. Datu guztien arabera, gaur egun senideek egiten dute zaintze lana. Senideek diogu baina, berez, emakumeek egiten dutela esan beharko genuke: gehienbat, laguntza behar duenaren emaztea edo alabak dira zaintzaileak. Hau da, emakumeok arduratzen gara lan horretaz, musu truk, gure gizartea hala antolatua dagoelako. Ordaintzen digutenean ere, oso lan egoera txarrean ari gara. “Nahikoa da!” esateko eskubidea dugu, beraz.

Legearen inguruko eztabaida oso aberasgarria da. Gero eta jende gehiago bildu da hitz egitera. Denek onartzen dute emakumeek jardun dutela lan horretan urte askoan, eta agerian gelditu da, behingoan, lehengo emakumearen egoera ikusezina. Bada hitz bat egoera adierazteko: zapalkuntza. Emakumeok lan hori egitea ez da txalotzekoa, zapalkuntzaren ondorioa da eta zapalkuntza bera elikatzen du: emakumezkoen lanak, oro har, gizonezkoenak baino txarragoak izan ohi dira, gizonezkoek baino diru gutxiago irabazten dute... Zaintze lanetan jarduten duten emakumeak, gainera, bitartekariak dira, ez dira inon ageri, ez dute ahotsik. Horregatik, bada, guk ikusezintasuna ez ezik zapalkuntza ere salatzen dugu: gizartea bere horretan iraunarazten duen gai funtsezkoetako bat da, gure iritziz. Hala, egin izan dugun kanpainaren leloetako bat ondokoa izan da: “Berdintasunik ez dago, zaintzea banatu gabe”.

Gure helburua Euskal Herrian zaintza sistema publikoa lortzea da. Bi arrazoi ditugu zaintza sistema publikoa eskatzeko: batetik, norbera zaindua izateko modurik onena delako, arreta hobea baita, dudarik gabe; bestetik, zaintzaileen lan baldintzak ere hobekiago direlako, eta kontrolatzeko modukoak. Honek ez du esan nahi zaintza guztiek soldatapekoak izan behar dutenik. Ez gaude zaintza arloa erabat merkaturatzearen alde; doako zaintza ere egin eta banatu beharko da gizon-emakumeen artean. Dena den, sistema publikoa eratzea da gure lehentasuna.

Legea egin da, bai, orain aplikatu eta garatzeko garaia da eta horretarako nahitaezkoa da gizarte arloan askoz ere diru gehiago inbertitzea. Sistema hobea nahi dugu, zerbitzu nahikoak eta kalitatezkoak.



Maria Jesus Agirre
Arabako Batzar Nagusietako kidea

Arabian aspaldi ari dira herri erakundeak eguneroko bizitza aurrera eramateko zailtasunak dituzten pertsonen beharrak asezen. Kontu historikoa ere bada.

Gaur egun, berriz, mendetasuna prozesu dinamikoa eta aldakorra da eta, esango genuke, dimentsio asko dituen gertakaria. Esaterako, Araban mendetasun egoeran dauden biztanleen artean aniztasun eta heterogeneotasun handia dago: ezberdinak dira beraien adina, mendetasun egoeraren jatorria, azaltzen dituzten gaitasun mugak, behar duten laguntza mota...

Azken urteotan nabarmen hazi dira mendetasun egoeran dauden kopurua eta larritasuna. Gaur egun, adibidez, jakina da familiek egiten duten lanak ez duela luzaro iraungo, gizarte eta familia egituretan gertatu diren aldaketa handien ondorioz; izan ere, familiek lehen baino seme-alaba gutxiago dituzte, gero eta gehiago dira etxetik kanpo lan egiten duten bi ezkontideak eta familia nuklearra gero eta zabaltzena ari da.

Gaur egun, Araban, gizarte politikak duen gai handietako bat da mendetasuna. Laguntza behar duten pertsona gehienak senideek beraiek zaintzen dituzte eta batik bat andrazkoak dira horretaz arduratzen direnak. Dakigunez, 70 urteko emakumeek 90 urteko emakumeak zaintzen dituzte.

Horrenbestez, beharrei eta eskariei erantzuteko, nahitaezkoa eta premiazkoa da, zerbitzu aukera handia abiaraztea, mendetasun egoeran dauden pertsonak alaitu eta denborarik gehien pasatzeko beren etxean, kalitatezko zaintza eta laguntzarekin.

Behar-beharrezkoa da etxebizitza egokitzeko eta laguntza teknikoak emateko programak indartzea, bai eta bakarrik bizi diren pertsonak teknologia telematikoa bidez zaintzea ere; halaber, etxez etxeko arreta zerbitzuak berrantolatu eta handitu behar dira, eta familiaren babeseko zaintzak egiteko laguntza pertsonalak eta diru prestazioak martxan jarri.

Arabak, bestalde, arreta bereziko zerbitzu berriak behar ditu zahar etxeetan, eguneko zentroetan eta okupazio zentroetan. Laguntza sanitarioa legealdi honetako erronka izango da: unitate soziosanitarioak sortu behar dira, behar larriak dituzten pertsonak zaintzeko.

Mendetasunaren Legea dela eta, begi bistakoa da bete-betean urratzen duela EAEn eskumena. Hala ere, behin baino gehiagotan agertu dugu bestelako administrazioekin batera lan egiteko konpromisoa, zerbitzu, egitasmo eta prestazio gehiago abiarazteko, mendetasun egoeran dauden pertsonen eta haiek zaintzen dituztenei ere laguntzeko.



Luis Fernando Consuegra
Eusko Jaurlaritzako Gizarte
Gaietako sailburuordea

Autonomia Pertsonala Sustatzeari eta Mendetasun Egoeran dauden Pertsonak Zaintzeari buruzko 39/2006 Legea dela eta, lehenengo eta behin haren alderdi positiboak azpimarratu nahi ditugu, gizarte eskubideak zabaltzen eta bermatzen laguntzen duelako, bereziki, gizarte zerbitzuen esparrukoak diren programa eta prestazioak.

Nolanahi ere, hala legea landu zenean nola garatzeko eta aplikatzeko garaia heldu denean, jarrera kritikoa dugu, batetik, estatu-ko administrazio nagusiak ez duelako nahiko diru bideratu lege honetarako eta, bestetik, bat ez gatzelako erakundeen arteko koordinazioa gauzatzeko behar diren mekanismo hauskorrak kudeatzeko erarekin.

Dena dela, 39/2006 Legea planteatu eta onartu zenerako, EAEko herri erakundeak, sektoreko agenteekin batera, gizarte zerbitzuen euskal lege berri bat lantzen ari ziren, Mendetasunaren Legeak ekarriko dituen onurei ahalik eta etekin gehien atera eta disfuntzioak minimizatzen.

Onartu den gizarte zerbitzuetako lege aurreproiektuaren proposamenaren arabera, testuarekin batera datorren katalogoko prestazio eta zerbitzu multzoa –eta ez 39/2006 Legean jasotzen den azpimultzoa bakarrik– eskubide subjektiboa da eta, ondorioz, populazio osoak eskatzeko modukoa. Horrela, gizarte zerbitzuen euskal sistema eratuko litzateke, osasun eta hezkuntzan indarrean direnen parekoa, nahiz eta, gizarte zerbitzuen kasuan, EAEko hiru erakunde mailek (Eusko Jaurlaritzak, foru aldundiak eta udalak) ardura garrantzizkoak partekatu, esku-hartze sozialekoak diren hirugarren sektoreko agenteekin batera.

Dudarik gabe, gizarte zerbitzuen historiako momenturik erabakigarrienetarikoa batean gaude. Zerbitzuok eratzean, gure ongizate sistemaren laugarren zutabea (hezkuntza, osasun sistema eta pentsioekin batera) eraikitzeke aukera historikoa dugu eskura.

Jon Arizkun
Kazetaria

Hizkuntza bat, mila aurpegi

Modako kontzeptua “komunikatzea” da: komunikatzaile ona izatea, komunikazioa bideratzen jakitea, komunikabideak kontrolatzea... Komunikatzea nahitako egintza bat da, eta, gerta dadin, igorle batek informazio bat mezu bihurtu behar du, mezua kanal batean zehar hartzaile bati helarazi behar dio, eta horrek mezua informazioaz jabetu behar du. Hori jakinda, erraza da zehaztea –teorian, behintzat– zein diren arrakastaz komunikatzeko gakoak: mezu ulergarria ekoiztea, kanala irekita edukitzea eta solaskidearen arretari eustea. Hala, fisiko erakargarria duenak errazago bereganatzen du solaskidearen arreta. Begietara begiratzen duenak, berdin. Ozenki hitz egiten duenari nekez egin dakioke ez entzuna. Eta abar.

Mezu ulergarria ekoiztea dela eta, igorleak komunikazio-ekintzaren baldintzetara makurtu behar du. Telefonoz ari bada, lineaz bestaldekoari ezin dio paletarik erakutsi, egongelako horma zein kolorez pintatu nahi duen azaltzeko. Hitzez adierazi beharko dio. Hiru urte eta erdiko umeari ezin diezaiokegu “etzi” esan, ez baitu denboraren ezagutza. “Bi lo egin eta gero” esan beharko diogu.

Komunikazio-ekintzaren baldintzetara makurtzeari *egokitasun* deritza, eta beste modu honetara ere defini daiteke: egoeran egoerako hizkera erabiltzea. Egoera jakin batzuetan hiztunak ez du asko pentsatu behar egoki den hizkera aukeratzeko. Berez irteten zaiola ematen du, baina honetan ez dago berezkitasunik; bai, ordea, urteetako ikasketak eta praktika.

Engainatuta dago eskolan idazlan politak egin eta kazetari sar daitekeela pentsatzen duena. Gauza asko ikasi behar ditu kazetaritzan bera baino lehen aritu direnengandik: artikulua egituratzen, informazioa antolatzen, hitzak eta esamoldeak aukeratzeko, eta beste hamaika gauza. Lagunekin solasean darabilgun hizkerak ez digu idazteko balio. Idatzian ere, era bateko hizkera darabilgu kazetaritzan, eta beste era batekoa maitasun-olerkietan. Eta pil-pileko bakailoaren errezetan, beste era batekoa. Eta abar. Izan ere, komunikazioaren faktoreetako bat aldatu, eta aldatu egiten da egoera berrian egoki den hizkera; batzuetan, zeharo.

Normalean hizkeraz aldatzeko gakoak lexikoan –hitzetan eta esamoldeetan– datzala pentsatzen da. Zalantza barik, berbak garrantzitsuak dira: “hemen zomorrotz mota piloa dabil” hizkera arruntekoa da, eta “habitat honetan intsektu-espezia ugari bizi da”, zientzi hizkerakoa. Hala

eta guztiz ere, hizkuntzaren gainerako mailak eta alderdiak ez dira ahazturik utzi behar. Hizkera bakoitzak bere ezaugarri fonikoak, lexikoak, morfologikoak, sintaktikoak eta testualak ditu, ikasi eta praktikatu beharrekoak. Ahoskerako adibide bat ematearren, eskolan eta komunikabideetan ikasia dugu jendaurreko agerraldietan ez dela egokia <j> hotsa espainol eran ebakitzea.

Egoki ez den eran ahoskatzen tematuz gero, hiztunak solaskideen gaitzespena bilduko du beste barik, baina hizkuntza-desegokitasuna komunikazioa eragoztera ere hel liteke. Azken batean, hizkera bat erabiltzen jakitea ez da soilik era bateko mezuak / testuak sortzen jakitea; era horretako mezuak / testuak ulertzen jakitea ere bada. Eskolan matematika ikasi ezean, noruk uler lezake “sei zati hiru berdin bi”? Eskolan praktikatu barik, hiztunak ez du matematikako hizkera barneratzen, eta ezin daiteke jabetu mezu / testu horren atzean hau besterik ez dagoela: “sei gozoki ditut, eta nire hiru lagunei bina emango diet”.

Bannerretako hizkera ere, matematikakoa bezain “artifiziala” izan gabe, formula finko, esaldi egin eta adierazpide klixetuen bilduma bat da. Modu horretara bermatzen da hartzaileak erraz ulertzea mezua / testua. Izan ere, bannerrak (panelak, idazkunak, pankartak, oharrak, afixak, etiketak, kartelak, idazpuruak eta beste) nahiko oharkabean pasatzen dira. Begiak ez dira letretan pausatzen; lerroen gainetik labaintzen dira, ia banakako hitzak identifikatzeko astirik gabe. Bannerretako mezua, baina, garrantzitsua izaten da, edo, hobeto esanda, igorlearentzat garrantzitsua izaten da hartzaileak mezua jasotzea. Igorleak, beraz, hartzaileari begiratu ere egin barik mezuaz jabetzeko estrategiak baliatu behar ditu.

Estrategia horien funtsa, gorago esan bezala, hiztunak go-goan ondo barneratuta eta ondo finkatuta dauzkan esapideetara jotzea da. Bannerrean idatzitako testua zenbat eta ezagunagoa izan, orduan eta egokiagoa izango da, komunikazioan oztipo gutxiago gertatuko dira eta.

Eragiketa hau amaitu eta gero, beste bat gura duzu egin?

Mezu hori azaltzen da kutxazain automatikoen pantailetan, zirrikitan sartuta dagoen txartela jabeari itzuli baino lehen. Horrelako mezu baten gainetik erabiltzailearen begiak ez dira erraz irristatzen, behaztopa handi bi aurkitzen dituzte eta.

Lehen behaztopa lexikoa da. “Gura” ez da aukerarik zuhurrena, “nahi” unibertsalaren aldean, eta litekeena da zenbait euskaldunek kostata ulertzea.

Bigarrena sintaktikoa da. “Gura duzu egin” ordena iraulitzat jo liteke, eta “egin gura duzu”, ordena linealtzat, normaltzat. “Gura duzu egin” zer den konturatzeko, erabiltzaileak birritan edo hirutan irakurri behar du pantailako mezua. Besterik ez da esan behar, testua desegokia dela frogatzeko. Egokia, hau da: “Eragiketa hau amaitu eta gero, beste bat egin nahi duzu?”.

Hemen erretzea dago

Tabakoaren legearen harira, lokal publikoetan ipini behar diren karteletarako Eusko Jaurlaritzak testu hori hobetsi du. Desegokiagorik ez dago.

Lehenengo eta behin, euskaraz aditz-modu oso bat daukagu baimena eta debekua adierazteko, potentziala dei dezakeguna. Unibertsala da, ongi finkatua, eta oso erabilia. Potentzialaz baliatuz, mezu ezin egokiago hau osatuko genuke: “Hemen, erre daiteke”.

Jaurlaritzaren testuan, ostera, muzin egin zaio berezko adizkiari, eta horren lekuan perifrasi bat ipini da, aditzizenean oinarritua, txokokeria handia dena: “-tzerik ez egon”. Azkenaldian, perifrasi hori nahiko hedatu da euskararen hego-mendebaldeko eremuan, ezina adierazteko. Hain gauza berria eta hain eskualde mugatukoa izanik, ez da egokia bannerretarako. Oraindino desegokiagoa da horren baiezkoko forma, “-tzea egon”, are berriagoa, eta are eskualde mugatuagokoa baita.

Goiko testu horren gaitzekin amaitzeko, ezin da alde batera utzi “hemen erretzea dago” gramatikaltasunaren mugan dagoela. EGLU-IIak berak (472. or.) *ba-* aurrizkia ezinbesteko osagaitzat jotzen du ahala adierazteko perifrasieta: “Lan hori biharko bukatzea badaukat”. Horrenbestez, Jaurlaritzaren mezua hobeto –zuzenago– legoke beste modu honetara: “Hemen erretzea badago”.

Edozelan ere, alferrik da okerra dena ez hain oker jartzen aritzea. “Hemen erretzea badago” ez da egokia, bannerretan txokokeriak eta berrikeriak tokiz kanpo baitaude forma unibertsal, tradizional eta ongi dokumentatuen aldean.

Hurrengo irekiera


Esaldi horrek ez du zerikusirik tren eta metroetako kartel argidunetan ipintzen den esaldiarekin: “Hurrengo geltokia: Bidezabal”. “Hurrengo irekiera” denda batean ikusi dugu erakusleihoan itsatsita, obrak egiten ari ziren bitartean, laster amaitu behar zituztela adierazteko.

Erraza zen “laster irekiko dugu” asmatzea, baina testua idatzi zuenak nahiago izan zuen eredu batera jo. Gorago esan bezala, bannerretako hizkeran esaldi finko eta eginetara jotzen da, eta, hain zuzen, horixe da hobetsi beharreko jokabidea, esaldia beste hizkuntza batekoa izanda ere. Formula batek ondo funtzionatzen badu, ez dago zertan asmatua asmatzen ibili.

Gertatzen da, baina, hizkera jakin batek ezaugarri linguistiko batzuk izan ditzakeela hizkuntza batean, eta ezaugarri ezberdinak beste batean. Gure inguruko hizkuntzetan, adibidez, estilo nominala darabilte bannerretako hizkeran, baina euskaraz ez zaigu oso egokia.

Estilo nominala aditzak (*abriremos*) izen (*apertura*) bihurtzean datza, eta, horren ondorioz, adizlagunak (*próximamente*), izenlagun (*próximo / -a*). Kartelen bat beste hizkuntza batetik euskaratzen dugunean, estilo nominala saihestu beharreko tranpa dugu.

Karteletarako aditza baztertu nahi izanez gero, testu laburra eta inpersonala osatze aldera, estilo nominalean osatuko genukeen bezala, euskaraz ere badugu modua: “Laster zabalik”.



Laburbilduz. Hizkuntza ez da oztopo komunikazioan. Hizkuntzak beti eskaintzen ditu baliabideak komunikazioaren baldintzei behar bezala erantzuteko. Hitzunari dagokio ezagutza zabaltzea eta erabileran trebatzea.

Asier Larrinaga Larrazabal
ETBko Euskara Saileko burua

Hutsa, eta azukrerik gabe



Aze goiza gaurkoa, baninan atsedeen egiteko premia. Kafesnea, ezta? Nora ez dun jaitsiko, eta Eneko alkatearekin zagon. Azken boladan ez din atsedeen egiten. Ez zakinat, serio plantak egiten ari dun mutil hori. Ez al dun hala uste? Nora etorri denetik, esan nahi dinat. Behin ekarriko lankide berria, eta hain gatzik gabea egokitu beharra ere! Ez esateko konturik din behin ere, ez barre egiten din ezerekin, zer zakinat ba nik! Haren urteak izango banitu! Eneee! Hogeita zortzi urte, oraintxe one-nean, administrari oposizioa atera berri, eta, hala ere, beti kopeta beltz horrekin. Nik uste dinat hartzen duen kafe horrengatik dela. Ez zagon beste esplikaziorik. Nolako kafea hartzen dunan, halaxe ikusten dun bizitza. Halakoxe simplea dun. Bel-beltza eta azukrerik gabe hartu egin behar din gero! Garratza gustatuko zaion akaso, baina nik uste dinat bere burua zigortzeko modu bat dela. Ez al zain iruditzen? Gustatuko balitzaio, azken tanta ere zurrupatuko liken, baina ikustekoa dun haren mahaia, kafe hotzez beterik zaukan. Euskal Bedinaren museoa zirudin.

Begira ezan nirea, ezta hondarrik ere. Beste bat hartuko niken oraintxe, baina badakin, kafea tamainan beti. Nerbioek ezagun egiten dituen gero. Ez dinat ulertzen nola den posible kafea hola uztea, erdizka. Merkea dun makinakoa, hogeita hamabost zentimo zer dun ba gaur egun, baina hartzekotan ganoraz hartu, ez? Hala iruditzen zaidan niri. Gainera, ez zakinat zer erakutsi nahi duen, beste inor baino langileagoa dela akaso? Ez din atsedeen egiten goiz osoan. Laneko arriskuak prebenitzeko ikastaro horretan esan zigutenan, ba, garbi asko, jaikitzeo tarteka eta luzatzeko hankak, komeni dela atsedeen hartzea. Neska hau, ordea, ez dun komunera jaiki ere egiten. Nik ez zakinat nola egon daitekeen pertsona hainbeste orduan hortxe, bizi-seinalerik ere eman gabe. Langilea bai neska, hori ezin dun ukatu, baina bizitasun pixka bat ere ez luken sobran.

Hala ere, gaur izan din disgustua gaur. Bikote bat etorri dun orain ordubete ez dela. Neska polita, baina mutila... Eneee! Lehen begiratuan maitemintzen duten horietakoa. Nire adinean ez zienat mutilei begiratzeko, badakin, haren ama izan ninteken, baina izaten ditun ba batzuk atentzioa ematen duten horietakoak, ba halakoxea zunan gaur etorri dena. Neskalgunarekin etorri dela, horixe pena. Badakin, halakoak ondo harrapatzea komeni izaten dun, ondo harrapatzea komeni izaten denez! Hasieran pentsatu dinat horregatik gelditu dela hain zurbil gure Nora. Bat-batean halako mutil ederra, badakin, lotsatu-edo egingo zela. Baina ez, ezagutzen zinan, ondo ezagutzen ere.

Mutila hitzik gabe gelditu dun. “No-o-ra!”, egin din, esan ezinezko izen luze horietako bat balu bezala, eta lotsatu samar segitu din gero, “ez nekien hemen ari zinenik”. Sekulako ezustekoa hartu din, eta ez ona, inondik ere. Norak apal-apal eta begiak jaso gabe erantzun zion, baietz, lanpostua atera berri duela. Esplikazio handirik ez zion eman, eta zertara etorri diren galdetu zion berehala, hotz samar, dena esan behar bada. Mutila hitzik gabe geratu dun orduan, totelka hasi dun, badakin, “zera, gu, ba, jakin nahi dugu” eta hola, nola esan asmatu ezinik. Neskalgunak egin zion begiratu. Ikusi izan bahu! Azkenean berak hitz egin behar izan din, mutila gauza ez zela ikusita. Ba al dakin zertara etorri diren? Ba, informazioa nahi zitenan, izatezko bikote izateko zer egin behar den jakin nahi zitenan. Ikustekoa zunan Noraren aurpegia. Eta orduantxe uler-tu dinat. Sorgin samarra naizela pentsatuko dun agian, baina seguru nagon. Nora mutil horrekin maiteminduta zagon. Garbi asko ikusi dinat. Nik ez zakinat elkarrekin ibiliak diren edo ez, Nora eta mutil guapo hori alegia, baietz esango niken nik, eta Nora, inondik ere, harekin txora-txora eginda zagon oraindik. Gajoa neska. Entzun ere ez zitzaionan egiten. Nahi dutenean etortzeko esan zien, bost minutuko kontua besterik ez dela. Biharko egin dituen hitzordua. Zer eta Norak lotuko duen lehenengo bikotea! Ez niken haren tokian egon nahi oraintxe. Lanean hasi berri, eta hori ere tokatu egin behar.

Alde egin din, ba, bikoteak, eta hantxe joan dun komunera, pixak alde egingo balio baino azkarrago. Ez naun atez bestalde entzuten aritzen diren horietakoa, baina iruditu zaidan zintzaka ari zela. Gero, haren mahaira joan naun Juan Joxe Elizalderen txostena eramatera, badakin baimena eskatu din sekulako etxea egiteko, eta hantxe zeukanan idatzita, “Imanol Etxebeste, maiatzak 9, 10:00”. Neskaren izenik inon ere ez. Baina bitxieta zera dun, malko batek ezabatzen zuela Imanol izenaren erdia.

Konturatu naizenerako, hantxe zegonan bera, nire atzean, begiak gorri-gorri. Bere gauzetan muturrik ez sartzeko esan zidan, pentsa, nori eta niri. Baina ez zionat kontuan hartuko, gaizki pasatzen ariko dun eta. Gajoa neska.

Eneee! Hamabiak laurden gutxi ba al ditugu? Kontu kontari nola joaten den denbora. Bueltatu beharko dinagu lanera. Hago, hago, pixka batean, kafea eramango zionat Norari. Azukre pixka batekin, ea zertxobait goxatzen duen.

Maidor Ziaurritz

Euskaraz Europarantz

Euskal Herriko Unibertsitateak

Euskararen Plan Gidaria onartu berri du.

Europako beste unibertsitate guztiak bezala, Euskal Herriko Unibertsitatea ere Goi Mailako Hezkuntzaren eta Ikerkuntzaren Europar Espazioaren sorrerak gauzatuko duen eszenatoki berria prestatzen ari da. Bolognako adierazpenak (1999) abian jarri zuen prozesu honek hainbat aldaketa ekarriko ditu unibertsitateetara, gero eta gehiago globalizatzen ari den mundu honetan hezkuntza eta ikerkuntza sistema europarra erronka berrien aurrean emankor eta lehiakorra izan dadin.

Prestakuntza eta egokipen ekimen honetan, Euskal Herriko Unibertsitateak berezkoa duen berezitasun bat kontuan hartu behar du: gure unibertsitate publikoa bi hizkuntza ofizialetan diharduen erakundea da, eta honela izango da, baita Bolognako markatutako eszenatoki berrian ere. Unibertsitateko estatutuek jasotzen duten elebitasun hau etorkizunean ere bermatzeko, UPV/EHUKo Gobernu Kontseiluak ekaineko saioan gehiengo handi batez *Euskararen Plan Gidaria (2007/08-2011/12)* onartu du.

Aurreko bi plangintzen aldean, plan berri honek berritasun bat dakar. Beste bi planak euskararen “normalizaziorako” planak izan badira, oraingo honen izenburuan “normalizazioa” hitza ez dugu aurkitzen. Hori ez da kasuala, aldaketa honek ideia garbi bat adierazi nahi du eta: XXI. mendearen hasieran Euskal Herriko Unibertsitatean iritsi dela momentua hizkuntza politika unibertsitateak berezko duen eginkizun arrunt gisa ulertzeko. Horrela, esaterako, irakasleen lanpostu elebidun berriak sortzen badira, ez da izango euskararen egoera eta euskarazko eskaintza *normalizatze*ko, baizik eta gure unibertsitate elebidunak bere eginbeharrak behar bezain ongi gauzatzeko, lanpostu horien beharra daukalako. Hizkuntza politika unibertsitatearen ohiko jardueran txertatuz, UPV/EHUKo funtsezkoa den arloari merezi eta eduki behar duen garrantzia ematen zaio. Eta horrela izan behar du halaberrez, Euskal Herriko Unibertsitateak euskal gizarteak eskatzen dion zerbitzua eskaini nahi baldin badu. Datu gutxi batzuk ematea aski da unibertsitate eta gizartearen arteko lotura hau begi bistan uzteko. 1997/98 ikasturtean, UPV/EHUn euskaraz ikasi nahi zuten ikasle berrien kopurua ikasle guztien % 23,5 izan zen, baina 2006/07an lehen aldiz matrikulatu diren eta ikasketak euskaraz egitea erabaki duten ikasleen kopurua % 43,9koa izan da. Hemendik gutxira, ikasle berri gehiago matrikulatuko dira euskarazko taldeetan gaztelaniazkoetan baino. Euskal Herriko Unibertsitateak ahalegin handiak egin ditu, eskaintzen dituen titulazio gehienetan irakasgaiak euskaraz ere eskaintzeko. Egun, derrigorrezko irakasgai guztien bi heren baino gehiago ematen da euskaraz eta plantillako arduraldi osoko 3.000 irakasleetatik % 35 da euskalduna. Administrazio eta zerbitzuetako langileen erdiek baino gehiagok daukate hizkuntza eskakizunen bat egiaztatuta.

Jakina, hori guztia ez da nahikoa, euskararen presentzia unibertsitatean behar bezain ongi bermatuko bada. Hori dela eta, *Euskararen Plan Gidaria* unibertsitatearen arloetan hainbat helburu eta ekimen definitzen ditu gaur egungo gabeziak konpontzeko eta Bolognako prozesuak ekarriko duen etorkizunari atea zabaltzeko. Horietariko gutxi batzuk aipatzearen, planak iraungo duen bost urtean ikasle kopuru nahikoa duten titulazio guztien derrigorrezko irakasgai guztiak euskaraz eskaini eta horretarako beharrezkoak diren lanpostu berriak sortuko dira; etorkizuneko graduak titulazio berri guztiak euskaraz emango dira eta graduondoko titulazioetan euskararen presentzia nabaria bermatuko da; langileak euskalduntzeko aukera berriak eskainiko dira; erabilera planak garatuko dira ikastegi eta zerbitzuetan; ikasmaterial berria sortzeko bultzada eman go da; irakasleen eta ikasleen hizkuntza prestakuntzarako laguntza bereziak eskainiko dira; Euskara Zerbitzuaren azpiegitura indartuko da; ikerketaren euskarazko dibulgazioa sustatuko da eta euskararen erabileraren inguruan dauden interes komunak lantzeko Euskal Herriko beste unibertsitateekiko elkarlana bultzatuko da.

Plan Gidariaren onarpenean urte luze baten lan trinkoaren fruitua izan da. Horri ekin aurretik, unibertsitateko arduradun bezala banekien oso ongi hurrengo bost urteko hizkuntza politika finkatuko duen dokumentu garrantzitsu hau lantzerakoan, ezinbesteko bi baldintza bete behar zirela: alde batetik, unibertsitateko sektoreen ahalik eta parte hartzerik handiena; eta, bestetik, adostasun maila handia. Euskararen auzi korapilatsu honetan, goitik beherako inposaketa eta gehiengo eskas batean oinarritutako plan bat onuragarria izan beharrean kaltegarria izango litzateke. Azkenean, adostasun maila handia lortu baldin bada, azken urteko elkarrizketa eta negoziazio guztietan parte hartu duten gehien-gehienek beren planteamendu maximalistak alde batera utzi dituztelako izan da. Jarrera horri esker, orain Euskal Herriko Unibertsitateak badu lan tresna berri eta garrantzitsu bat, Europarazko bidaia berme guztiarekin egin ahal izateko, baita euskaraz ere.

Ludger Mees
UPV/EHUKo Euskara errektoreordea

Zeintzuk dira gaur egungo gazteen balioak?

Zerk kezkatzen ditu Euskal Herriko gazteak? Nola ikusten dute beren etorkizuna? Heldu batzuen aburuz gero eta eskubide gehiago dituzte, eta betebeharririk ia batere ez. Beraien jarrera asko norberekoikeria, lehiakortasuna eta kontsumismoa sustatzen dituen gizartearen ondorioa direla erantzuten dute gazteek. Gaiaren inguruko bost iritzi bildu ditugu.



Aitziber Perez Euskal Herriko Gazteriaren Kontseiluaren koordinatzailea

Globalizazio kapitalistak kulturaren uniformetasuna bultzatzen du, zentzu kritikoaren, sormen gaitasunaren eta aniztasunaren kaltetan. Sistemak gazte eredu zehatz bat inposatzen du eta

denak eredu horren jarraitzaileak izatera bideratu nahi ditu. Horrela, gazteen artean ez dira gutxi anorexia edo bulimia daukatenak edo psikologoaren arreta behar dutenak. Emakume gazteak dira, nagusiki, gaitz hauek pairatzen dituztenak. Kezkagarria da urtero Euskal Herrian bere buruaz beste egiten duten gazteen kopurua. Enpleguaren behin-behinekotasuna da nagusi eta sistemak gazteria behartzen du horrelako egoera bat onartzera eta bitzitza osoan bere prestakuntza etengabe garatzera. Gainera, familiarekiko mendekotasunak eta independizatu ezin izanak gazteen garapena atzeratzen dute. Horrela, gazteriari sistemak eskaintzen dion alternatiba ihes egitea da. Modaren bidez gorputz eredu eta janzkera zehatzak zabaltzen dira. Arazoei aurre egin beharrean, gaur egun sistemak ihes egiteko aukerak bultzatzen ditu.

Gazteriaren azkeneko biltzarrean gailendu ziren kezka eta beharrak etxebizitza eskubidea, lan duina lortzea, drogen fenomenoak, espazioen antolaketa, euskara, hezkuntza, aisialdi eredu berriak... izan ziren. Guk inork baino hobeto ezagutzen baititugu bizi dugun egoeragatik pairatzen ditugun arazoak, baita horietako batzuei buelta emateko behar duguna ere. Zenbatetan hitz egiten da guri buruz gu kontutan hartu gabe? Eskerrak herri honetan oro har gazteria dinamiko eta aktiboa dugun eta egiteko eta eskaintzeko asko dugun.

Javier Elzo Soziologoa



Gazteek eta gizarte multzoak ez dute nahitaez balio desberdinak izan beharrik. Ezin da hitz egin gazteei eta gizarteari buruz, gazteak gizarte honetako partaideak izango ez balira bezala. 2006an Donostiako Udako Ikastaroetarako prestatu nuen lan batean azaltzen nuen azken 30 urteetan euskal gizartearen egon den balio

aldaketa handia espirituaren erlijiotik gorputzaren erlijiora igarotzea izan dela. Elizak hustu eta jendeak medikuarekin egiten du lehen apaizaren aurrean egiten zuen aitortpena. Eta egiaztatzen dugu osasuna dela euskal gazteen lehentasun nagusietakoa; eta erlijioa azkenetakoa. Lagunartean, aske, bakarrik, neurri handiago ala txikiagoan kontsumituz... gauean elkarrekin egotea da, gehiengo handi batentzat, helburu nagusia. Baina hau ez da euskal gazteriaren berariazko ezaugarria, ez eta garrantzitsua ere. Europako hegoaldeko gizartearen balio etiko modura azpimarratuko nituzke leialtasuna, egiazaletasuna eta fideltasunaren bilatze ezkutu bat. Euskaldunek elkartasuna eta desberdinak direnekiko tolerantzia plusa agertzen dutela gehituko nuke. Helburu balio gisa, edozeren gainera familia ona eta lagun onak izatea aipatuko nituzke. Adin batera helduta, bikote finkoa. Euskaldunen kasuan, polarizazio indartsua ere gehituko nuke, nahiz eta lehen begiradan kontraesana dela eman: jatorrizko familia tradizionalaren errotzea (gurasoak eta familia zabalaren instituzioa) eta familia forma berriekiko (homosexualak, guraso bakarrek...) irekiera handia. Azkenik, jokamoldeei lotutako balio modura, indibidualismoa (baina Euskadin, nabarmen, talde indibidualismoa); bakoitzak nahi duena egiteko askatasuna, nahiz eta bitzitza bideratzeko aholku zuhurrak eskertzen dituzten; eta autonomoak izateko asmoa, nahiz eta isilpean bitzitari zentzua ematen dioten erreferenteak eskatzen dituzten.



Ignacio Sanz
EDE Fundazioko Gazteria
Ikerketa eta Aholkularitza
taldeko kidea

Gazteak bizi diren gizartearen isla eta parte dira, eta helduek bezala beren burua balio pragmatiko, altruista eta orainaldikoekin identifikatzeko joera dutela esan genezake. Lehentasuna dute hedonismoak, etorkizunarekiko kezkarik ezak, egunean bizitzeak eta bide tradizionalatik kanpo transzendentzia bilatzeak, sozialki izen ona galdu duten ahale-

ginaren, aurreztearen eta diziplinaren gisako balioen aldean. Balio aldaketa honek gizarte osoari eragin dio eta arrazoi kultural eta ekonomikoak ditu oinarrian. Horrela, gazteak duela urte batzuetako elkarte politiko, erlijioso edota sindikaletan parte hartzetik aisialdi eta kulturarekin erlazionaturiko elkarte zehatzagoetan parte hartzera pasatu garelako esan genezake.

Gazteei buruzko ikerketetan zabalitzen ari den iritzia da, beste garaietakoekin alderatuta, guraso eta seme-alaben arteko belau-naldi jauzia txikitu edo desagertu egin dela. Gazteek zein gurasoek antzeko balioak dituzte eta istiluak eguneroko bizitzarekin zerikusia duten kontuetan sortzen dira (ordutegia, ikasketak, ordainsaria...). Gazteen ahotsak ez dauka beraie zuzenean eragiten dieten erabakien gaineko iritzia emateko behar adina lekurik.



Imanol Zubizarreta
EHIGE Gurasoen Elkarteko lehendakaria

Familia da oinarritzko balioak transmititzen dituen gunea eta hori ez da askorik aldatu, teoriarik, nire ustez. Baina praktika beste kontu bat da: gure seme-alabek zer-nolako gizarte eremuan bizi behar duten ikusirik, gizarte horretan "lehiakorrak" izateko jarrerak erakusten dizkiegu nagusiki. Ahalik eta diru gehien lortzen, ahalik eta eroste ahalmen handiena eskuratzen, bizimodu materialista bizitzen... erakusten diegu gizarte eredu honetan aurrera egin ahal izateko. Horregatik, iruditzen zait ez dela gazteen errua balio egoki horien falta; nire ustez, familiek utzi diogu balio horiek transmititzeari, bai denbora faltagatik, bai seme-alabekin liskarrik ez edukitzeagatik, bai etxean bakean bizitzeagatik... Eta akats larria da, noski.

Gaur egun oso zabaldua dagoen iritzia da gazteek eskubide asko eta betebeharrak batere ez dutela. Baina eskubideei begiratuta, jabetuko gara askatasunaren izenean jokabide desegoki batzuk aldarrikatzen direla: alkohola eta drogak neurritz gaindi hartzea, aisiarako ordutegiaren mugarik eza, bandalismoa, eta elkarbizitarako arau jakin batzuk haustea. Horren arabera, pentsa genezake eskubide gehiegixko eskatzen dituztela, baina betebeharrak konplitu gabe. Aitzitik, egoera sakonxeago aztertzen badugu, jabetuko gara

jokabide horiek nerabezaroan gertatzen direla, nagusiki. Alegia, zer gertatzen da gazteak 25 urte dituenean, langabe dagoenean edo behin-behineko lan batean ari denean, etxebizitza eskuratzeko modurik ez eta, beraz, gurasoenean bizitzera behartuta dagoenean? Ez dago behar adina baliabide gazteek gizartearen parte hartu eta bizi proiektuak beren kabuz gauza ditzaten bermatzeko. Nire ustez, askotan pentsatu ohi dugu gaur egungo gazteek esku-eskura dutela dena, baina benetan garrantzizkoena dena, herritar eta pertsona gisa hazteko behar dutena, gaur egun pertsona helduak garenok geure gaztaroan izan genuena baino urrunago dute.

Markos Zapiain
Filosofu eta irakaslea



Ez dakit zeintzuk diren gaur egungo euskal gazteen balioak. Gazte bakoitza desberdin eta aldakor ageri da. Bestalde, "gazteak" kontzeptu nahasiegia da. Dena den, egungo gazteen hainbat jokabide ezinezkoak ziren gure garaian edo lehenago, eta horrek oinarrian balio aldaketa bat izan dela erakusten du. Berriki hamasei urteko mutiko zentzudun batek kontatu dit bere ohean etzanda masturbatzen ari zelarik ezustean aita gelan sartu zitzaioela. Aitak "barkatu" xuxurlatu eta alde egin zuen. Nire ikasle honek bere lana patxadaz eta gozoro burutu ondoren sukaldean aurkitu zuen aita, urduri bezain lotsatuta. Ikasleak berak kontsolatu behar izan zuen aita: "Lasai, aita, ikusi duzun hori normala da, naturala. Zuk ere egingo zenuen nire adina zenuenean, ezta?" Ezin dut antzeko egoerarik imajinatu Imanol Murua aita-semeen artean.

Nik ez dut uste belau-naldi berriak balioak galtzen ari direnik. Gaur egun ezagutzen ditugun izkribu politikorik zaharrenek honelakoak adierazten dituzte: "Gazteak begirunea galtzen ari dira, betiko balioez trufatzen dira, ohitura txukunak galbidean daude, ez dago helduenganako errespeturik..." Antzinaroko Egipton, etengabe salatzen zuten moralak usteltzen ari zela, orobat mintzatzeko modu jatorria eta oro har hizkuntza. Juduen testu profetiko zahar askok ere gero eta okerrago gabiltzala gaztigatzen dute, eta endekatze honek ez duela irtenbiderik. Platonek berdintsu. Aldatzen ez dena sentsazio horixe da: gazteek pikutara garamatzatela. Baina sarritan gazteak soilik gazte den bitartean izaten ditu bere gurasoenak ez bezalako balioak; heldu bilakatu ahala, gurasoenak errepikatze joera hazten zaio.

Begoña Minaur
Kazetaria

Pygmalion efektuaz: bestearen begiek bizi naute

Niri gertatutako eta inoiz inon kontatutako pasartea etortzen zait gogora Pygmalion efektuaz norbaitek zerbait diostan bakoitzean. Igande hartan egunkari sorta erosi eta goizeko eguzkiaren epela goxatzea deliberatu nuen, herriko plazan bertan. Ordu erdira-edo aspaldiko laguna agertu zen kalean behera. Seme jaioberriaren gurditxoari tiraka zetorren. “Ieup, aspaldiko, zer moduz, hobeto guran”, eta beste ohiko batzuk esan eta gero, betelanerako hitzak alboratu eta elkarrizketa sortzaileagoari ekin genion. Bitartean, umetxo jaio berria gurditxoan, seko lo.

Artean elkarrizketak agortzeko zantzurik ez zuela, umetxo esnatu eta negarrari eman zion, gogotsu eman ere, bakarrik umeez egiten duten moldean, moderazioaren nozio barik, min edo beldur handiren batek sakatuta bezala. Besoa luzatu eta gurditxoari eragin zion lagunak, kulunkaren engainuak balioko zuelakoan. Gabezia hark kontsolamendu handiagoa behar zuela sendo iritzita, zutundu eta gurditxora hurreratu zen.

Zetorrenari begira geratu nintzaion, aita-semearen artekoari so, zelatan, neurtu guran bezala umearen beharrian itxuraz mugarik gabea eta aitaren trebezia. Zaintzailearen eta umetxoaren artean sortzen den espazio txikiaren handitasuna, mundutasuna, aurrean nuen. Psikologiak aspaldi deskubritu du bizitzaren saltsa ur txikitari egosten dela; elkarreragin goiztiar txikien zurrumbilo ezin garrantzitsuagoan, alegia.

Eta, begia jota nionean giza bizitzarako hain espazio determinanteari, aitzak zera bota zion umetxoari, sutsu eta maitekiro aldi berean: “Zer gura jok gure tigreak?”.

Hara, animalia indartsua, pentsatu nuen. Umetxoak ez zuen felino arrastorik. Ez zeukan ezpain goialdean katu ilerik, ez atzealdean buztan zantzurik. Negarraren aurrean, ordea, indarraren eta potentziaren irudia itzuli zion aitak. Oihanean, tigreak inor gutxi egiten baitio burutik behera txiza, pentsatu nuen. Irabazlearen figura bueltatu zion, zer arraio.

Opari bikaina begitandu zitzaidan, bai jauna, umetxoarentzat ispiluak baitira zaintzailearen bi begiak. Pantaila horretan hasten da bere burua nor den konprenitzen, nondik datorren, nolakoa den, zer izatera irits daitekeen. Inoren begietan ikusten duen irudia autoirudi bilakatuz doa pixkanaka. Hortxe, bizitzarako hain garrantzitsua den autokontzeptuaren sorlekua, pentsatu nuen neure baitan. Hortxe, nor bere bidaia biografikoan elikagai izango den saltsa, ur txikitari egosia (eta egotzia), beti saltsa lodia, bai bitaminaz josia datorrenean nola mingotsak jota iraultzen denean umetxoaren gorputz hauskorren gainean.

Zilegi bekit digresioarekin jarraitzea. ‘Tigrea’ bezalako hitz goiztiarrek badute garrantzia, zelan ez. Baina hitzen botereaz ez, hitzek garraiatzen duten afektu positiboa zein negatiboaren botereaz ari naiz. Afektuaren efektuaz, nolabait. Zaintzailearekin duen igurtzian, umetxoak usain, tenperatura eta,

adi honi, espektatiba mundu bat aurkitu eta barneratzen du. Afektuz –positiboz ala negatiboz– lagunduriko pertzepzio sorta baten jariora datorriko umeari, autopertzepzio bilakatuko dena egunerokotasunaren bide txiki, ugari eta konplexuetatik. Hitz arketipikoek pertzepzio horiek garraiatzeko funtzioa dute. Bestela esateko, merkantzia sozio-kognitiboak burmuinetik burmuinera garraiatzeko abiadura handiko kanalak dira hitzok. *Hitz garraiatzaileak* dira, espektatiben mundu oso bat bestearengan isurtzen dutenak.

Jakina, berba solte bat ez, inozokeria litzateke hori pentsatzea. Umearen barrualdea zizelkatzeko hitz garraiatzaile gehiago behar da, jario oparagoa, sistematikoki eraiki eta isuritako hizkuntza unibertsoa; lasai bitez, beraz, behin edo behin hitz garraiatzaile desegokia isuri duten gurasoak. Orduan, hitz/afektu fluxuak dentsitate egokia hartzen duenean, tigreak bizia hartzen du barrualdean, umeak bidelagun izango duena beti.

Psikoanalista ugari eginiko aurkikuntzek argi utzi dute: zaintzailearen eta umetxoaren arteko espazio txiki sakratu horretan mamitzen hasten dira, apurka-apurka, bizitzan nork berarentzat diseinatzen dituen horizonteak, autoestimua, nork bere buruarekin ezarriko duen harreman estiloa, nork bere buruarentzat nahi dituen bizi ibilbide posibleak. Nagusien munduan, zementuzko oihanean bizirauteko tasunak eta keriak hortxe egosten dira, hein handi batean.

Neure pentsamenduetan bilduta nengoela, lagunaren umetxoari erreparatu nion berriro: zinez, ezpain goialdean iletxo batzuk ageri zirela begitandu zitzaidan. Neskatilatxo izan balitz, ordea, zein hitz garraiatzaile erabiliko zukeen aitak, bihurri itaundu nion neure buruari. Segituan alboratu nuen *tigresa* terminoa; begi bistakoak dira arrazoiak. Beharbada *katutxo* legoke eskurago. Edo *katagorritxo*, auskalo. Betiere, txikitasuna garraiatzeaz arduratzen den ‘txo’ atzikiarekin. Eta, edozelan ere, atzikiarik gabe ere, ahuleziatik samurtasunera eta goxotasunetik pasibotasunera, semantikaren orrialde horretan kokatuko litzateke hitz garraiatzailea. Hor nonbait ardaztuko litzateke neskatilatxoak barnerratu beharreko mundua.

Begi bistakoa dena baieztatu nuen: kulturalki, emakumeei boterearen hizkuntza ostu zaie. Emakumeei potentziaren iru-

dia ukatzen zaie oraindik, askok menderatze patriarkala beste garai batzuetako arrasto arkeologikoa dela defendatu arren.

Digresioaz baliatu nahi nuen ondokoa baieztatzeko: besteen begietan ikusitakoak bizi gaitu; besteen beso artean sentituta-koak egiten gaitu; nor bere definiziorako bestea iturri ezinbeste-koa baita. Nire buruari aitortzen diodan balioa, besteek aitortu/aitortzen didaten balioaren arabera da, hein handi batean.

Indibidualismo amorratuko garaian, besteekiko independentzia erabateko eta hazkorraren fikzioak indar aparta duen honetan (garai postmodernoan bizitza proiektu indibiduala utopia ia bakar bihurtzeraino), egunero gogoratu behar genuke hori. Besteak ematen digula bizia, nolabait. Freud-ek berak aurreratu zigun psikologia oro psikologia soziala dela ezinbestean, bestearekikoan eratzten baita giza subjektua.

Idea nagusia finkatuta, natorren harira: hanka bikoon portaera hein batean bestearen itxaropenek orientatzen dute eta hori, ez besterik, da Pygmalion efektua. Familian, ikastolan, enpresan, herrialdean zein edozein gizarte erakundetan gertatzen da hori.

Beste hainbat giza fenomenok bezala, greziar mito batetik hartu du izena. Txipreko erregea izan omen zen Pygmalion; emakume estatua ezin ederragoa zizelkatu zuen, bere idealaren neurriko andrazkoa egin zuen, eta berarekin maitemindu zen; Venus jainkosari erregutu ostean, honek bizia eman zion estatuari; Galatea deitu zion Pygmalionek. Hollywood-eko arrosa koloreko filma balitz bezala, ezkondu eta zoriontsuak izan ziren.

Hots, bestearengan jartzen ditugun itxaropenak komunikatu egiten dizkiogu nolabait, eta besteak bere egin. Horregatik, 'begiratzeko moduak' garrantzitsuak dira oso: aita-amek umeari zelan 'begiratzeko' dioten; irakasleak ikasleari; enpresako nagusiak menpeko langileari; lagunak lagunari...

Hezkuntzan aski frogatua dago: irakasleak ikasleengandik zer eta zenbat itxaroten duen, zein definizio helarazten dien ikasleei euren aukerei buruz, horrek eragin handia du ikasleen emaitzetan. Irakasleak zein hitz garraiatzaile erabiltzen duen, gauzak zelan esaten dituen, bere aurpegiak zer helarazten duen, bere begiek zein irudi bueltatzen duten, gorputzarekin zer adierazten duen, horrekin guztiarekin asko ari da komunikatzen. Normalean ikasle batzuei gauza bat eta besteek beste bat komunikatzen ari zaie. Eta, noski, hark zioen moduan, ereindakoa jaso ohi da. Trata ezazu alaba, laguna, ikaslea edo langilea lerdoa balitz bezala, eta lerdo bilakatuko da berandu baino lehen.

Edozein enpresatan, zein bestelako giza erakundetan, 'ukiezinak' ukaezinak dira: edozein erakundetan, pertzepzio anitzez beteriko korronteak eta azpikorronteak ditugu, itsas gainetik doazen olatuak zein azpitik, ezkutuagotik doazen ur lasterrak. Material kognitibo, afektibo eta sinboliko hori zein norabidetan erabiltzen ari garen ez da hutsaren hurrengoa; *Management by Perception* deitu dio baten batek.

Emakumeak lan txikiararako eta beltzak kirolerako kontsideratuak izan dira luzaroan eta, errealtatearen gaineko definizio ideologiko hori egia bilakatu da zenbaiten kasuan: menpeko funtzioari ondo atxiki ostean, hainbat emakumeri ezinezkoa egin zaio ardura handiagoko funtzioei heltzea, esaterako. Emakume askok barruan tigrerik ez, boterearen eta indarraren barne irudirik ez. Dispositibo psikologiko horiek ukatu ostean, errealtateak baieztatuko du uste ideologikoa.



Bi ohar gehiago. Lehenengoa: itxaropen handiegiek, nahiz karga positiboz blai etorri, potentzial suntsitzaile izugarria izan dezakete; areago, espektatibok pertsonak akabatze bide zuzena izan daitezke pertsona horiek aukera errealetatik harago jartzen direnean; halakoetan, frustrazio handien atarikoak izan ohi dira.

Bigarrena: Pygmalion efektua erabil daiteke onerako ala txarre-rako. Erabil daiteke klima emozional gizatiarrago, sortzaileago eta askeagoa sortzeko. Erabil daiteke produktibismoaren mesederako, enpresa basatien kudeaketarako tresna instrumental soil gisa, langileen kontzientziak manipulatzeko edo sedukzio estrategia faltsuak euskarritzeko. Erabil daiteke zintzotasunez –helarazten ditugun espektatibak bat datoz barruan sentitzen dugunarekin– ala faltsukeriaz –itxaropenok ez dute zerikusirik gure benetako sentipenekin, baina Pygmalion efektuaren garrantziaz hitz egin didate eta berori baliatu behar–.

Izan ere, ukiezinen aplikazioa arte bat da.

Joseba Azkarraga Etxegibel
Soziologian doktorea
MU-HUHEZIKO iraskalea




Begiraleek asko egin dezakete haurren artean euskararen erabilera sustatzeko

Ttakun Kultur Elkartea
Gipuzkoako Foru Aldundia
Donostia, 2007
129 or.

Izenburu luze horren atzean egitasmo bat dago; Gipuzkoako Foru Aldundiko Gazteria eta Euskara zuzendaritzen eskariz, *Ttakun* Kultur Elkartek landutako egitasmoa. Askoren kezka da euskararen ezagutzaren eta erabileraren artean dagoen jauzia: gero eta gehiago dira euskara dakitenak, baina gutxi dira erabiltzen dutenak. Haur eta gazteen artean euskararen ezagutza nabarmen igo da azken urteotan, baina euskararen erabilera ez da neurri berean zabaldu. Eta erabilerari begira, eskola orduz kanpoko jardueretan emandako denbora oso garrantzitsua da; jarduera asko eta asko begiraleen ardurapean egiten direnez, helburu nagusia hurrengo da: 3 eta 11 urte bitarteko umeekin eskola orduz kanpoko jardueretan aritzen diren begiraleei euskararen erabilera sustatzeko tresnak eskura jartzea.

Lan honek hiru atal nagusi ditu: lehenengoan haurren artean euskararen erabilera modu natural batean sustatzeko oinarriak aurkezten dira; bigarrenean udaleku, ludoteka, dantza eta kirol jardueretarako adibideak proposatzen dira; eta, hirugarrenean, haurrak euskaraz mintzatzerako bultzatzeko motibazioa aztertzen da.



El Lenguaje Jurídico Actual

Cazorla, Luis María
Aranzadi
Pamplona, 2007
163 or.

Hizkuntza eta Zuzenbidearen arteko lotura haustezina da, Zuzenbidearen oinarriko eta funtsezko tresna hizkuntza baita, denok erabiltzen dugun hizkuntza. Zenbaitetan, akats gramatikalak direla-eta edo terminologiaren berezitasuna dela-eta, hizkera juridikoa iluna gertatzen zaigu. Prieto de Pedroren hitzetan: “Idazten duenak nahitaez lortu behar du oreka teknizismoaren eta naturaltasunaren artean; teknizismoak zehaztasuna bermatuko du, eta naturaltasunak ulergarritasuna”. Beste alde batetik, gizartearen erabiltzen den hizkuntzak gero eta gabezi gehiago ditu: zehaztasuna falta zaio, ez du ñabardurarik... Hizkera juridikoak hizkera ez-juridikotik ere edaten duenez, pobretzeko arriskuan dago. Saiakera honek oreka hori lortzeko hainbat ildo zabaldu eta lanean hasteko proposamenak egiten dizkigu.



Hezitzaileek asko egin dezakete...: tresnak eta adibideak

Ttakun Kultur Elkartea
Gipuzkoako Foru Aldundia
Donostia, 2007
40 or.

Aurreko argitalpenaren osagarria da. Honako honetan proiektuko oinarriak nerabeen jardueretako adibide zehatzetara ekartzen dira: lanerako tresna zehatzak proposatzen dira eta, tresnekin batera, kontuan hartu beharreko alderdiak eta aplikaziorako adibide jakinak ere txertatu dira.

Hiru lan hauek web gune hauetan eskuratu daitezke:

www.gipuzkoaeuskara.net www.gipuzkoa.net/gazteria
www.ttakun.com



Hezitzaileek asko egin dezakete eskola orduz kanpoko jardueretan nerabeen artean euskararen erabilera sustatzeko

Ttakun Kultur Elkartea
Gipuzkoako Foru Aldundia
Donostia, 2007
85 or.

Honako hau nerabeekin lotutako lana dugu. Argitalpen honen helburu nagusia ondokoa da: 12 eta 18 urte bitarteko gazteekin eskola orduz kanpoko jardueretan aritzen diren hezitzaileei euskararen erabilera sustatzeko tresnak eskura jartzea. Lanak bi atal nagusi ditu: lehenengoan, nerabeentzako antolatzen diren jardueretako hizkuntza errealitatea, erakunde parte hartzaileak, hezitzaileak eta nerabeak aztertzen dira; bigarren atalean, hizkuntza helburuak nola finka daitezkeen eta helburuok lortzeko zein estrategia balia daitezkeen proposatzen da.



Onomatopeia eta adierazpen hotsen hiztegia

Santisteban, Karlos
Mensajero
Bilbao 2007
333 or.

Onomatopeia eta adierazpen hotsez gain, interjekzioak, abestietako lelo eta errepikapen hitzak, jolas eta jokoetako esaera eta formulak, sorginkeria hitzak... aurkituko dituzu hiztegi honetan. Ikerketa egiteko hainbat iturri erabili ditu egileak, besteak beste, Koldo Mitxelenaoren *Orotariko Euskal Hiztegia*, *armiarma.com* web guneko *Klasikoen gordailua*, *XX. Mendeko Euskararen Corpusa*, *Ereduzko Prosa Gaur*, *euskomedia.org*, *euskaraz.net*, *teatro-testuak.com...*

Ezkio eta Amallo

Historia bera ere amaitu dela esateraino heldu garen garaiotan, guztiari –edo ia guztiari– deritzogu aspaldikoa. Gaur egun Euskal Herrian erlijio praktikak inoiz baino txikiagoak direnean, sinistu ezin ikusten ditugu gure arbaso hurbilenen sinesmenak. Ez dugu geure burua ikusten inondik ere islamistek erakusten duten fanatismoan. Beste mundu batekoak deritzegu Jainkoaren izenean gerra santua egitera daramaten portaerei. Baina gure artean oraindino bizirik diraute gurutzada batean parte hartu zutela uste zuten batzuek. Izan ere, 36ko gerrak laster hartu zuen kutsu erlijiosoa; kutsu horretako muturrekoena ez zen gaur egungo jihadistak askok hartzen duten portaera bera baino apalagoa.

Euskal gizartea erabat kaletartu da eta horrek nahiz beste eragin soziologiko batzuek erlijioa baztertzea-edo ekarri dute; hortik datoz harridura eragiten dizkiguten gure aurrekoen jardun edo sinesmen batzuk, esaterako mirarrietan eta Ama Birjinaren agerpenetan sinestea.

Ez dira dozena erdi urte igaro Ezkioko Ama Birjinaren agerpenei buruz pelikula bat estreinatu zenetik, baina oso jende gutxi daki 30eko hamarkadaren lehenengo urteetan Gipuzkoako herririk horretan zer gertatu zen esaten. Dena den, Eibarren Errepublikak aldarrikatu eta hilabete gutxira Goierriko zelaian batu ziren jendetzek esaten zutena ez zen nolanhikoa. Han gertatu zena, edo gertatu zela esaten zena, funtsean ez zen Lourdesen edo Fatiman onartzen zenaren erabat ezberdina. Anduagako zelaian Ama Birjina agertu zitzaizkion ume batzuei eta hitz egin, umeok ikusi eta entzun zutena etxean esan eta, ondoren, berria handik mundu zabalera hedatu zen.

Frantzia eta Portugalen onartu zena Euskal Herriko kasuan ia hasiera-hasieratik mesfidantzaz ikusi zuen Elizak, eta Mateo Mugica Gasteizko gotzainak laster debekatu zuen Ezkiora joatea, han gurtzak egitea eta Ama Birjina agertu zela esatea. Hala ere, umeek Ama Birjinaren berri eman zutenetik gotzainak debekua sinatu zuenera arteko hilabeteetan, Ezkion milaka lagun batu ziren zerutik etorritako baten bat ikusteko esperantzan edo, behintzat, zuzenean entzuteko asmoz.

Hau guztia kontu zerutiarra bazen ere, lurtar batzuk beren onerako erabiltzen ahalegindu ziren, etorri berria zen Errepublikak laiko eta ezkertiarren kontra. Agerpenak ezin hobeto baliatu nahi izan zituzten, artean gorpuzteko bidean lehen urratsak besterik emanak ez zituen apirileko erregimenaren kontra jotzeko. Eskuindarrek zilegi irizten zioten erlijioa erabiltzeari, beraien helburuak erdiestearren. Euskal Herri katolikoan agerpena bedeinkapentzat hartu eta eskuneko hainbat eragile agintari errepublikanoen kontra erabiltzen hasi ziren, baina bidean Mateo Mugica gotzainarekin egin zuten topo.

Mugica, integrista bazen ere, ez zegoen prest erlijioa horrelako joko politikoetan erabiltzeko eta gutxiago Vatikanoren ildoaren kontra egiteko. Gotzaina ohartu zen zein eratan baliatu nahi zituzten Ezkioko agerpenak, Vatikanok onartu zuen espainiar erregimen berriaren kontra, eta ez onartzea erabaki eta inkesta zientifiko bat agindu zion jesuita bati.

1934rako eliz debeku guztiak jarriak ziren Ezkioko agerpenen kontra eta 1931n Euskal Herriko eta erbesteko ikaragarriko jendetzak batzen zituen Ezkioko Anduaga zelaia hutsik zegoen edo fededun gutxi batzuk baino ez ziren haraino bertaraten. Euskal Herriko Lourdes izan zitekeena ia ezerezean gelditu zen.

Baina harrezkero ere izan dira Euskal Herrian antzeko fenomenoak politikarekin lotu izan direnak eta, beharbada, bitxiena Amalloko sagarrondoarena.

50eko hamarkadan Baionan kanporatuta bizi zen EBBko kide batek Bizkaiko jeltxer bati agindu zion Markinako Amallo auzora bisita bat egin eta han gertatzen zenaren berri emateko, Bizkaiko paraje haietatik albiste bitxiak zetozen eta.

Albisteok hauxe zioten: Amallo hartan abade gazte bat gerra denboran fusilatutako lekuan zegoen sagarrondo bat haize bolada batek eraitsi zuela, baina arbola berpiztu egin zela eta adar bat ihartu beharrean berdetu. Auzo hartan armada nazionalak hil zuen apaizaren deitura Sagarna zen eta jendeak izen hori sagarrondoarekin lotu zuen. Inguruetan adar berdetuarena bolo-bolo zebilen eta gero eta jende gehiago hurreratzen hasi zen. Jakina, Amalloraino hurbiltzen zirenak abertzaleak ziren eta adarraren fenomeno politikoa egiteko erabil zezaketen. Hala uste zuten agintariek, eta laster hasi ziren guardia zibilak sagarrondo zaintzen eta auzokoei esaten kontuz ibiltzeko kanpotarrei esaten zietenarekin. EAJko agintariek ere ez zuten ondo ikusten halako kontu bat, adar jotze bat izanez gero, ordurako asko ahulduta zegoen erakundeak beste kolpe bat hartuko zuelako. Nolanahi ere, Amallora sagarrondo ikustera hurbiltzen zirenek harridura ikusten zuten nola zirauen arbolak bizirik; beraien iritziz, mirari mailaraino heltzeko moduko fenomeno izan ez arren, ez zen askoz urrunagoko kontua.


Ordurako, baina, kontu zerutiarrak belaunaldi berrien imajinariotik urruntzen hasita zeuden eta ez zuten sagarrondoaren adar berdetuaren kontuak iraun gazteen gogoan, besteak beste sagar arbola bat zer den ere ia ez dakigulako eta horrela ezin jakin daitekeelako zer den harrigarria eta zer ez.

Iñaki Goigona Mendiguren
Abertzaletasunaren Agiritegiko teknikaria

Hitz gezidunak

		Zulatzeko tresna	Intsektu mota	Lehen sakramentua	Anaia, hitz elkarketan	Frantziarren hegoaldeko lurraldea	
		* Argazkiko instrumentua	Amildegia	Ipar., zein	Aurizkia		
		Ospelak					
		Hegazti mota					
Pl., fruitu mota	Gelaren gainean				2		
Andaluzia-ko hiria	Bizk., sobera				Kriptona		
				Naizen honek		Kontsonantea	
				Nafarroako herria		Joan den urteko	
Emakume izena					Gipuzkoa-ko ibaia		
Su					Trebe		
		Barre xumea				Non atzizkia	
		Izen arabiar				1	
Nitrogenoa	Atsegina				Ipar., izu		
Arotzaren lanabes	Kasik				Ez eme		
			Gipuzkoa-ko herria			Errep., gorotza	
			Potasioa			Iodoa	
Portuak				Gipuzkoa-ko herria			●

Goitik behera



Aurkitu beharreko hitz bakoitza letra bat gehiago edo gutxiago duen aurreko edo ondoko hitzaren anagrama da

1. Ebaki sakonak.
2. Ikuskizun mota.
3. Kolore mota.
4. Toles.
5. Beldur, ikara.
6. Adi ezazu!
7. Idi pare lotzeko tresna.
8. Zazpigarren hilabete.
9. Bira, jira.

Soluzioak

⊛	⊛	A	K	I	T	A	N	I	A	⊛
A	N	A	I	I	R	I	A	Z	K	O
⊛	I	Z	⊛	K	⊛	R	⊛	I	⊛	I
B	A	T	A	I	O	R	I	A	R	I
O	T	Z	O	I	N	A	R	I	A	O
⊛	L	A	B	A	R	R	A	I	A	K
Z	U	L	A	G	A	I	L	U	A	K
⊛	D	⊛	S	A	I	⊛	A	L	I	⊛
			⊛	L	A	R	⊛	I	A	⊛
			⊛	M	A	N	⊛	A	K	⊛
			⊛	G	A	N	⊛	M	A	⊛

H - I - T - Z G - E - Z - I - D - U - N - A - K

1. Zauriak. 2. Zirkua. 3. Zaria.
4. Izur. 5. Izu. 6. Aizu!
7. Uzta. 8. Uzta. 9. Itzulia.

Goitik behera